# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2025eko irailaren 8a | 99. ZK.


## A U R K I B I D E A


F SAILA:

**Galderak:**

—11-25/PES-00217. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea betetzen dela bermatzeko abian jarriko diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—11-25/PES-00218. Galdera, Nafarroako Kirol Jokoetan irailetik aitzina kirol-jarduera bermatzeko abian jarriko diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—11-25/PES-00219. Galdera, Mondragon Unibertsitatearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—11-25/PES-00220. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroak Nafarroari eragin dion gastuaren itzulerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—11-25/PES-00221. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—11-25/PES-00222. Galdera, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko funtsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—11-25/PES-00223. Galdera, NaVEAC Drive-LAB proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—11-25/PES-00224. Galdera, VAIVEC proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—11-25/PES-00225. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Gardentasunaren Kontseiluak hartutako erabakiak ez betetzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—11-25/PES-00226. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa berriz egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—11-25/PES-00227. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren instalazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—11-25/PES-00228. Galdera, Albyn-ekiko akordioan BEZa sartzearen ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

—11-25/PES-00229. Galdera, Cintruénigoko Udalaren eskaria jaso ondotik Gobernuko lehendakariak eta Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

—11-25/PES-00230. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuro estimulatzaile elektriko bat erabiltzeko formakuntza eta bilketa zerbitzua gaitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—11-25/PES-00231. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuro estimulatzaile elektriko bat erabiltzeko txaplatak biltzeko zerbitzua gaitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—11-25/PES-00232. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren aparteko laguntzak jaso ahal izateko legez ezarritako baldintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—11-25/PES-00233. Galdera, Basaburutik Iruñerrira etortzen diren ikasleen eskola-garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—11-25/PES-00234. Galdera, Nafarroan CorreosLabs sortzeko lankidetza-akordioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—11-25/PES-00235. Galdera, Atzerriko Hizkuntzako Curriculuma saioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—11-25/PES-00236. Galdera, laborategien zerbitzua kanpoan kontratatzeari buruz Osasuneko kontseilariak adierazitakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—11-25/PES-00237. Galdera, Latasako hondakin-uren araztegian kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
—11-25/PES-00238. Galdera, Ultzama ibaian mindak isurtzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
—11-25/PES-00239. Galdera, turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
—11-25/PES-00240. Galdera, Hilarión Eslava ikastetxea 0tik 3 urtera bitarteko ikasleen beharrizanei aurre egiteko egokitzera bideratutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
—11-25/PES-00241. Galdera, Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara etortzeko eskola-garraioan gertatutako gorabeherei emandako erantzunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
—11-25/PES-00242. Galdera, Sumando TV eta WEB SAri (Navarra TV) 2015etik 2025era bitarte emandako diru publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).
—11-25/PES-00243. Galdera, trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (51. or.).
—11-25/PES-00244. Galdera, giltzurrun-transplanteak egitearren Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratutako pazienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (51. or.).
—11-25/PES-00245. Galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako kredituen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (52. or.).
—11-25/PES-00246. Galdera, Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus hiriarteko garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (53. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

## 11-25/PES-00217. Galdera, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea betetzen dela bermatzeko abian jarriko diren neurriei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea betetzen dela bermatzeko abian jarriko diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-25/PES-00217 idatzizko galdera egin zuen, jakiteko zein neurri jarriko diren abian Nafarroan kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko 18/2019 Legea betetzen dela bermatzeko. Bada, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Prozesu hori inplikatutako eragileekin koordinatuta ari da gauzatzen, hala maila teknikoan nola juridikoan, Nafarroako kirol-eremuan kalitatea, segurtasuna eta profesionaltasuna zaintzea ahalbidetuko duen jarduketa-esparru eraginkor bat ezartze aldera. Behin azterketa hori amaitutakoan, indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion ekintzak ezarriko dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## 11-25/PES-00218. Galdera, Nafarroako Kirol Jokoetan irailetik aitzina kirol-jarduera bermatzeko abian jarriko diren neurriei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Nafarroako Kirol Jokoetan irailetik aitzina kirol-jarduera bermatzeko abian jarriko diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-25/PES-00218 idatzizko galdera egin zuen, jakiteko zein diren datorren irailetik aurrera Nafarroako Kirol Jokoen garapena eta kirol-jarduera ziurtatzeko abian jarriko diren ekintzak. Bada, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Azterketa- eta plangintza-prozesu batean gaude, Kirol Jokoen esparruan kirol-jardueren jarraitutasuna, kalitatea eta segurtasuna bermatze aldera. Azterketa-lan horiek amaitu ondotik, ezarri beharreko neurri zehatzak jakinaraziko dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

---

## 11-25/PES-00219. Galdera, Mondragon Unibertsitatearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Mondragon Unibertsitatearekiko hitzarmena berritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00219 galdera egin zuen Mondragon Unibertsitatearekin hitzarmena berritzeari buruz, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Berrituko al da Mondragon Unibertsitatearekiko hitzarmena Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako unibertsitate adituko ikastaroa berriro egiteko? Hartutako erabakia azaltzea eskatzen dut.

Ez da berrituko. Izan ere, ez da horretarako aurrekontuko partidarik aurreikusi. 2024tik, CEIN Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarrak “start-up liders” izeneko ikastaro bat eskaintzen du, gehienez 20 plazatarako (sobera beteta, eskariaren interes handiagatik). Ikastaroaren helburua praktikoa da, nagusiki, kasuaren metodoan eta esperientzia errealetan oinarritzen da, eta bertaratutakoak start-up bat zuzentzen trebatzea da helburua. Sektore guztiei zuzentzen zaie.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## 11-25/PES-00220. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroak Nafarroari eragin dion gastuaren itzulerari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroak Nafarroari eragin dion gastuaren itzulerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00220 galdera egin zuen Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa emateak Nafarroari ekarri dion gastuaren itzulkinari buruz, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Zein da Mondragon Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenaren xede den eta Nafarroako bost ikaslek bakarrik parte hartu duten Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroak Nafarroari ekarri dion gastuaren itzulkina?

2024an ez zen ikastaroaren ediziorik izan. Galderak aurreko edizioei egiten badie erreferentzia, departamentu honetan ez dugu aipatzen den azterlanaren berri. 2024tik aurrera, CEIN Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarrak “start-up liders” izeneko ikastaro bat eskaintzen du, gehienez 20 plazarako (soberan beteta, eskariaren interes handiagatik). Ikastaroaren helburua praktikoa da, nagusiki, kasuaren metodoan eta esperientzia errealetan oinarritzen da, eta bertaratutakoak start-up bat zuzentzen trebatzea da helburua. Sektore guztiei zuzentzen zaie.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## 11-25/PES-00221. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak kus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00221 galdera egin zuen Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroari buruz, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa egin da, baina Mondragon Unibertsitatearekiko hitzarmena ez da bertan behera geratu, nahiz eta ez den bete gutxienez ere 15 ikaslek izena eman beharraren betekizuna. Zergatik?

2023ko urtarrilean, Mondragon Unibertsitateak posible ikusten zuen ikastaroa hasteko 15 ikasle izatea. 2023ko otsaileko mezu elektroniko batean aipatzen da ikastaroa 14 pertsonarekin hasi zela, 8 nafarrak eta 6 EAEkoak, eta beste bi interesdun zeudela. Mondragon Unibertsitateak Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiari helarazitako informazio hori ikusita, ikastaroa egitea erabaki zen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

---

## 11-25/PES-00222. Galdera, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko funtsei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko funtsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak informazioa eskatu du, jakiteko ea zein funts jaso dituen Nafarroak Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsen banaketatik eta nola jaso dituen. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitateak ez du parte hartzen autonomia-erkidegoek eta Ceutak eta Melillak Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatu dezaten estatuak egiten dituen aurrekontu-kredituen banaketan; izan ere, finantza-alderdi horiei dagokienez, Nafarroak araubide berezia dauka –Hitzarmen Ekonomikoa–, eta 2020tik aitzina Nafarroak horren gaineko esku-

men osoa daukanez, Nafarroak bere gain hartzen duen zama modura hartzen da ekarpen ekonomikoan, eta ez dio estatuari ekarpenik egiten kontzeptu hori dela-eta.

Nabarmendu beharra dago, bestalde, Nafarroak kontzeptu horretan parte hartu zuela 2018an eta 2019an, 1.736.110 euroko deskontua eginda Estatuari egin beharreko ekarpenean urte horietako bakoitzean, ez baitzen jasota egon 2015eko oinarri-urtean.

Hortaz, auzi hori Nafarroak baliatutako gainontzeko eskumen bereki guztiak bezala tratatzen da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-25/PES-00223. Galdera, NaVEAC Drive-LAB proiektuari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak NaVEAC Drive-LAB proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak PES-11-25/00223 galdera egin zuen NaVEAC Drive-LAB proiektuari buruz, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Berrikuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 20ko 319E/2021 Ebazpenaren bidez, 4.443.750 euroko gastua baimendu zen Ibilgailu elektrikoa, autonomoa eta konektatua garatzeko NAVEAC Drive-Lab proiektua ezartzeko —proiektua REACT UE baliabideekin finantzatu zen EGEF 2014-2020 programa operatiboaren bitartez zuzeneko emakidako prozeduraren bidez—, eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileak onetsi ziren.

Next Generation tresnaren barruko REACT-EU funtsak 12.400 milioi euro ditu Espainiarako, eta haietatik, funts horren konturako 147,8 milioi euro Nafarroara bideratuta daude.

Honako hau izan zen emakida-urteen araberako banaketa:

| 2021eko ekitaldia | 2022ko ekitaldia | 2023ko ekitaldia | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| 888.750 euro | 1.777.500 euro | 1.777.500 euro | 4.443.750 euro |

Emakidako gastu-partiden araberako aurrekontuaren banakapena eta proiektuaren bi mugarrietan egindako ordainketak taula honetan jaso dira:

| Kontzeptua | EMAKIDA | ORDAINDUTAKO zenbatekoa 1. MUGARRIA (2021/1/1-2022/4/30) (eurotan) | ORDAINDUTAKO zenbatekoa 2. MUGARRIA (2022/5/1-2023/9/30) (eurotan) | ORDAINDUTAKO zenbatekoa GUZTIRA (2021/1/1-2023/9/30) (eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| Inbertsioak | 2.927.892,00 | 758.777,71 | 2.167.667,38 | 2.926.445,09 |
| Langileak | 1.011.916,00 | 261.394,45 | 709.926,50 | 971.320,95 |
| Materialak | 289.305,00 | 22.053,04 | 89.890,70 | 111.943,74 |
| Kanpoko lankidetzak | 62.850,00 | 31.022,28 | 41.255,22 | 72.277,50 |
| Beste gastu batzuk | | 67.409,31 | 124.719,71 | 192.129,02 |
| Zeharkako kostuak | 151.788,00 | 39.209,17 | 106.488,97 | 145.698,14 |
| **Guztira** | **4.443.750,00** | **1.179.865,96** | **3.239.948,48** | **4.419.814,44** |

Proiektua 2023ko irailaren 30ean bukatu zen, eta Nafarroako Gobernuak, guztira, 4.419.814,44 euro ordaindu zituen.

Feder REACT funtsetatik izandako diru-sarrerak, guztira, 4.415.299,48 eurokoak izan ziren, eta 2025eko martxoaren 20an jaso ziren.

Ekintzen araberako banakapena hau da:

| Kontzeptua | Langileak + Zeharkako kostuak* | VEAC plataforma | Hiri barneko zirkuitua | Azpiegiturak | Logistika-laborategia |
|---|---|---|---|---|---|
| Inbertsioak | | 319.820,51 | 283.295,65 | 2.044.587,04 | 278.741,89 |
| Langileak | 971.320,95 | | | | |
| Materialak | | 11.072,19 | 18.563,67 | 69.215,00 | 13.092,88 |
| Kanpoko lankidetzak | | 9.332,28 | - | 62.945,22 | - |
| Beste gastu batzuk | | 64.058,01 | 6.291,50 | 70.562,13 | 51.217,38 |
| Zeharkako kostuak | 145.698,14 | | | | |
| **Guztira** | **1.117.019,09** | **404.282,99** | **308.150,82** | **2.247.309,39** | **343.052,15** |

*Langileen zenbatekoak eta zeharkako kostuak ez daude ekintzen arabera banakatuta.

Proiektuak egoera hau du gaur egun:

• Simulazio-plataforma batzuk garatu dira, haien bitartez gidatzen laguntzeko sistemak, sentsoreak eta eragiketak birtualki birsortzeko, era horretan probak kontrolpeko ingurunean egin daitezen benetan hedatu aitzin.

• Metodoak eta tresnak garatu dira ibilgailu elektrikoen elementuen segurtasun funtzionala ebaluatzeko.

• Instalazioak ezarri dira VEACen osagaien eta sistemen erresistentzia eta iraunkortasuna probatu eta ebaluatzeko.

• Trafikoa neurtzeko sistemak eta V2X komunikazioak garatu eta benetako zirkuitu batean ezarri dira, ibilgailuen eta ingurunearen arteko komunikazioa ebaluatzeko, gidatze autonomorako funtsezko betekizuna baita.

• Sentsore aurreratuekin probak egin dira, hala nola kamera, radar eta LiDAR sistemekin. Sentsore horiek garrantzitsuak dira ibilgailuaren ingu-

runea hautemateko, eta funtsezkoak gidatze autonomo segururako.

• Ekipoak eta prozedurak ezarri dira ibilgailu elektrikoetan erabilitako energia biltegiratzeko sistemen eta bateriren efizientzia eta iraunkortasuna ebaluatzeko.

• Ibilgailu elektrikoarekin hertsiki lotutako metodologiak eta teknologiak garatu dira, eta halakoetan zenbait alderdi —hala nola segurtasuna, arintzea, erosotasuna eta pertsonalizazioa— funtsezko gaiak dira etorkizuneko ibilgailuak hobetzeko, bai erabiltzailearen pertzepzioaren ikuspegitik, bai ingurumenaren arloan.

• VEACen eta bestelako azpiegituren arteko konektibitatea ebaluatzeko probak egin dira.

• Kontrolerako teknologia aurreratuak garatu dira automatizatzeko eta 4.0 industriarako joeren ildotik.

• Hiri barneko zirkuituan integratutako nabigazio autonomoko aplikazioak garatu dira.

Gaur egun, ezagutza enpresei transferitzen ari zaie, eta horretan ari da, hain zuzen, Naitec.

Proiektuaren aplikazioari dagokionez, espero izatekoa da proiektu honetan hartutako esperientziek eta ezagutzek Nafarroako bestelako garapen- eta berrikuntza-proiektuak bultzatzen jarraitzea, eta halakoek komunitatea eraldatzen laguntzea mugikortasun jasangarriagoa, berritzaileagoa eta konektatuagoa izateko.

NaVEAC Drive-Lab proiektuaren helburua hauxe da: Nafarroa are bizkorrago egokitzea ibilgailu elektriko, autonomo eta konektaturanzko (VEAC) trantsizioan.

Proiektuak laborategi bizia bihurtu nahi du, eta ikuspegi osoa eman nahi dio mugikortasunaren ekosistemari, merkatuan irtenbide sendoak azkarrago sar daitezen, laborategiko inguruneetan eta benetako egoeretan frogatuak.

Garatutako jarduera ildoen gainean, nabarmentzekoa da proiektuan garatutakoak lau azpiproiektu hauetan garatu direla:

**Osagai berriak testatzeko eta homologatzeko azpiegiturak**:

Horretarako, honako hauek garatu dira:

– Propultsio-sistemak testatzeko eta karakterizatzeko plataforma bat: plataformak barne hartzen ditu propultsio-sistema elektrikoetarako, entseguko eta balidatzeko gaitasunak, bai bidaiarien ibilgailuetan, bai industria-ibilgailuetan; hori horrela, askotariko alderdiak lantzen ahal dira, hala nola efizientzia, zarata, bibrazioak, erosotasuna, portaera termikoa eta abar.

– ADAS sistemetarako testatze birtualeko laborategi bat: Hardware-in-the-loop saiakuntza-bankua ezartzeak aukera ematen du gidatzen laguntzeko sistemak garatu eta balidatzeko (hala softwarea nola hardwarea), horrela lantzen ahal dira, besteak beste, detektatzeko zehaztasuna eta errendimendua, ibilgailuaren erreakzio- eta erantzun-denborak, fidagarritasuna, sendotasuna eta abar.

– 3D inprimatze elektroniko bidez egindako produktu berritzaileak diseinatu eta prototipatzeko azpiegitura: geruzaz geruza fabrikatzeko aukera ematen du; hala bada, azpiegitura efizientea eta moldakorra da, eta era berean, 3Dn inprimatzea ahalbidetzen du; horri esker, zenbait alderdi hobetzen dira, hala nola diseinua, prototipatzeko azkartasuna eta masako pertsonalizazioa, besteak beste.

**Esperimentatzeko VEAC Nafarroa plataforma:**

– Plataforma elektrikoa/zero emission ibilgailua sortu da. Aukera ematen du mugikortasun automatizatu, konektatu eta jasangarriarekin lotutako teknologiak diseinatzeko, saiatzeko eta hedatzeko.

– Goi-tentsioko ibilgailu elektrikoen mailako gaikuntza orokorra: jarduteko metodologiak eta prozedurak zehaztea ahalbidetzen du, arriskuak arintzeko eta goi-tentsioko ibilgailu elektrikoen inguruneetan lan egiten duten pertsonen segurtasuna zaintzeko.

Epe labur/ertainera, aukera ematen du ezagutzak teknologia hibridoak (H2) eta elektrikoak dituzten bestelako ibilgailuetara transferitzeko.

– Ibilgailu elektrikoarekin hertsiki lotutako metodologiak eta teknologiak garatzea; halakoetan zenbait alderdi —hala nola segurtasuna, arintzea, erosotasuna eta pertsonalizazioa— funtsezko gaiak dira etorkizuneko ibilgailuak hobetzeko, bai erabiltzailearen pertzepzioaren ikuspegitik, bai ingurumenaren arloan.

**Hiri barneko zirkuitua:** erreferentziako ingurunea sortu da VEACekin lotutako askotariko teknologiak eta funtzionalitateak diseinatu, saiatu eta hedatzeko, barne hartuta bai ibilgailuetan jarritako teknologiak, bai errepide adimendu eta konektatuen azpiegitura berriekin lotutako teknologiak.

**Logistika-laborategia kontrolerako teknologia aurreratu, adimendun eta robotikoak garatzeko:**

Azpiproiektu honek tripulatu gabeko sistema autonomoetarako irtenbideak landu ditu batez ere, hala aireko nola lehorreko eremuan, ikuspegia bere-

ziki aplikazio logistiketan paratuta. Lanean aritu dira teknologiak garatu eta hobetzeko, haien bitartez salgaien kudeaketa eta garraioan tripulatu gabeko ibilgailuen eragiketa efizientea ahalbidetzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

## 11-25/PES-00224. Galdera, VAIVEC proiektuari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak VAIVEC proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00224 galdera egin zuen VAIVEC proiektuari buruz, idatziz erantzun zekion . Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1. Zein izan da proiektu horrek Nafarroako Gobernuaren aldetik guztira jaso duen finantzaketa? Xehakatu erantzuna aurrekontu-partiden, ekintzen, ekintza bakoitzera bideratutako zenbatekoaren eta dataren arabera.

Proiektua 2019ko maiatzaren 1etik 2021eko azaroaren 30era bitartean egin zen, exekutatzeko aurreikusitako epearekin eta oinarri arautzaileek ezarritako justifikazioarekin bat etorriz.

Proiektuak guztira jasotako finantzaketa: 635.069,20 euro; bazkideen artean honela banatu da:

| ENTITATEA | JASOTAKO LAGUNTZA |
|---|---|
| ZIZU DESARROLLOS INDUSTRIALES SL | 100.491,29 |
| BEEPLANET FACTORY SL | 20.994,23 |
| INSTRUMENTACIÓN Y COMPONENTES SA | 54.279,69 |
| TRUCK&WHEEL | 1756,00 |
| ALESTIS CONSULTING SL | 53.227,91 |
| ANTERAL SL | 45.624,60 |
| I+G+B AUTOMOZIOA ETA MEKATRONIKA FUNDAZIOA | 358.695,48 |

I. eranskinean bazkide bakoitzaren aurrekontuko partiden araberako banakapena dago.

2. Zertan da proiektua gaur egun?

I+Gko proiektuaren exekuzioa 2021eko abenduaren 31n bukatu zen, eta dirulaguntzaren likidazioa 2022ko maiatzean egin zen.

3. Zeintzuk dira proiektuaren hasieratik gaur arte egindako mugarriak?

Deialdiaren oinarri arautzaileen 15. oinarrian ezarritako egutegiaren arabera (324E/2018 Ebazpena, abenduaren 24koa, Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiarena), zegozkion konturako ordainketak eta likidazioak egin ziren. Halaber, jarraipen-bisitak egin ziren helburu teknikoak lortu izana baieztatzeko.

4. Zer mugarri geratzen dira egiteke?

Bat ere ez.

5. Zein da proiektu horren aplikazio praktikoa Nafarroako gizartearentzat?

I+Gk aplikazio praktiko nabarmena du gizartean, eta aurrerapen ekonomiko, sozial eta teknologikoa bultzatzen du. Enpresaren eremuan, I+Gk aukera ematen die enpresei produktu eta zerbitzu berriak sortzeko, lehendik dauden prozesuak hobetzeko, eta merkatuko lehiakortasuna handitzeko.

Hain zuzen, VAIVEC proiektuak, 2019. urtetik 2021. urtera bitartean exekutatuak, xedetzat izan zuen zenbait teknologia garatu eta ezartzea gidatzearen automatizatzearekin eta mugikortasun-sistemen energia-efizientzia hobetu eta balidatzearekin lotuta.

Nafarroako gizarterako aplikazio praktikoa eremu ekonomiko eta teknologikoan dago. Aukera estrategikoa izan zen Nafarroak bere tokia indar zezan mugikortasunaren nahiz automatizazioaren arloan eta mugikortasun-sistemen energia-efizientziaren arloan.

Proiektua garatzeak lan-ildo berriak irekitzea ahalbidetu zuen zenbait sektoretan —automozioan eta logistikan, kasurako—, eta lagundu zuen produkzio-ehuna modernizatzen eta dibertsifikatzen.

Gainera, garatutako teknologiek, batez ere simulazio energetikoarekin eta sistema autonomoekin lotutakoek, ahalmen handia dute Nafarroarako garrantzitsuak diren beste sektore batzuetara transferitzeko, hala nola nekazaritzako garraiora, industria-floten kudeaketara, azpiegituren mantentze-lanetara, bai eta lehen sektoreko makinetara ere. Zeharkakotasun teknologiko horrek areagotu egiten du proiektuaren inpaktua hasierako aplikaziotik haratago.

Azken batean, proiektuak aplikazio praktiko nabarmena izan zuen, bai enpresa-berrikuntzari egindako ekarpenagatik, bai Nafarroako ekonomiako askotariko sektore estrategikoetara transferitzeko moduko ezagutza sortzeko gaitasunagatik.

6. Zer teknologia garatu dira ibilgailu industrial elektriko moldakor eta polifazetiko bat sortzeko?

Besteak beste, proiektuak honako garapen teknologiko hauek jorratzen ditu:

• Autopilotu-sistema bat garatzea eta ezartzea, ibilgailua aurrez ezarritako ibilbidetik gidatzea ahalbidetzeko.

• Sistema elektroniko bat garatzea, ibilgailuan txertatua, oztopoak hautemateko, eta ondotik, dagokion bezala jarduteko. Hartarako, LIDAR teknologia (ingurunea 3Dn antzemateko gauza) eta radarrak ditu. Ingurunea denbora errealean kudeatzen da ibilgailuan ezarritako sisteman.

• Eredu birtuala garatzea ibilgailuaren energia-kontsumoa simulatzeko, ahalik eta efizienteena eta adimendunena izan dadin.

• Entsegu-bankua propultsio-sistema simulatzeko: motorra, transmisioa eta bateriak, eredu birtualean kalkulatutako kudeaketa termikoko estrategia berresteko.

• Ibilgailuaren analisi dinamikoko eredua garatzea, ibilgailuak zerbitzuan eta aurkitzen dituen gertaeren aurrean nola jokatuko duen aztertu eta simulatzeko.

7. Zer erabilera ditu eraiki zen prototipoak?

Proiektua gauzatzean garatutako prototipoa orain erabiltzen ari ez bada ere (halere, fisikoki, ZIZU Desarrollos Industriales SL proiektuaren koordinatzailearen instalazioetan dago), hura eraikitzea eta balidatzea ezinbestekoa izan zen teknologiak esperimentatzeko, probatzeko eta frogatzeko.

Hain zuzen, prototipoak ahalbidetu zuen askotariko osagai teknologikoen funtzionamendua benetako egoeretan balidatzea, hala nola gidatze autonomoko sistema, oztopoen detekzio aktiboa (sentsore elektrikoen bidez), eta energia-simulazioko eredu birtuala. Teknologia horiek, proiektuaren helburuak betetzeaz gain, garapen berrietan aplikatzeko moduko ezagutza ere sortu dute zenbait sektoretan, hala nola automatizazio industrialean, robotika mugikorrean, logistika adimendunean eta nekazaritzako makineria aurreratuan.

Prototipoaren egiazko balioa izan zen, horrenbestez, frogatze eta transferentzia teknologikoko plataforma gisa betetako eginkizuna, gerora irten-

bide komertzialak garatzeko oinarri gisa balio baitu. Gainera, parte hartu duten entitateek proiektuaren emaitzak erabili dituzte proposamen eta garapen-ildo berriak diseinatzeko, eta horrek frogatzen du inpaktu teknologiak irauten duela prototipo fisikoaren zuzeneko erabileratik haratago.

I. eranskina; Partiden araberako banakapena (eurotan)

| PARTIDA / ENTITATEA | ZIZU | BEEPLANET | INSTRUMEN-TACION y COMPONENTES | TRUCK&WHEEL | ALESTIS | ANTERAL | NAITEC |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EKIPAMENDUEN AMORTIZAZIOA | | | | | | | |
| LANGILEAK | 143.213,98 | 27.921,63 | 214.020,77 | 7.024,12 | 118.284,25 | 88.148,01 | 236.977,78 |
| MATERIALAK | 72.100,00 | 8.732,21 | 3.098,00 | | | 13.240,00 | 47.346,64 |
| KANPOKO LANKIDETZAK | 8.000,00 | 10.000,00 | | | | | |
| BESTE GASTU BATZUK | | | | | | | 3.600,00 |
| ZEHARKAKO KOSTUAK | | | | | | | 70.771,07 |
| **Aurrekontuak, guztira** | **223.313,98** | **46.653,84** | **217.118,77** | **7.024,12** | **118.284,25** | **101.388,01** | **358.695,48** |
| **Laguntzaren intentsitatea** | **% 45** | **% 45** | **% 25** | **% 25** | **% 45** | **% 45** | **% 100** |
| **Laguntzak, guztira** | **100.491,29** | **20.994,23** | **54.279,69** | **1756,00** | **53.227,91** | **45.624,60** | **358.695,48** |

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25a

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

# 11-25/PES-00225. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Gardentasunaren Kontseiluak hartutako erabakiak ez betetzeko arrazoiei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Gardentasunaren Kontseiluak hartutako erabakiak ez betetzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00225 idatzizko galdera egin zuen, Gardentasunaren Kontseiluak HTN-Valle de Odieta SCL enpresaren jarduerei buruzko ingurumen-informazioa dela-eta pertsona batek Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka aurkeztutako erreklamazioa onestearen gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1.- Departamentuak zergatik ez du bete Gardentasunaren Kontseiluak 2024ko irailaren 9ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez onartu baitzuen HTN-Valle de Odieta SCL enpresaren jarduerei buruzko ingurumen-informazioa dela-eta pertsona batek Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka aurkeztutako erreklamazioa?

2025eko maiatzaren 29an, interesdunaren esku jarri dira eskatutako datuak.

2.- Zein da departamentuak herritar honen esku jarri nahi ez duen ingurumen-informazioa?

Departamentuak herritarren esku hasieran jarri ez zuen informazioa LER kode bidez kudeatutako hondakinen datuak izan ziren, bai eta ur-kontsumoari buruzko eta biogasak sortutako energia elektrikoari buruzko informazioa ere.

Honako informazio hau eman zen:

“1. 2023an instalazioan kudeatzeko jasotako hondakin guztiak [hauen batura: mindak (020106), nekazaritzako elikagaien hondakinak (LER 02 eta 19 kapituluak) eta udal-hondakin organikoak (LER 20 kapitulua)]: 304.679 tona.

Biometanizazioak sortutako digestatoak guztira: 194.914 tona.

5. Uraren kontsumoa. Kontatzaile nagusiaren neurketa.

Uraren kontsumoa, 2023an, anitzez txikiagoa izan da Ingurumeneko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 1383E/2021 Ebazpenaren I. eranskineko «Uraren erabilera» apartatuan adierazitako 28.518 m3 horiek baino.

6. Biogasak sortutako energia elektrikoa.

Sortutako energia kantitatea, 2023an, bat dator apartatu honetan esandakoarekin: Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 4ko 107E/2023 Ebazpenaren I. eranskineko «Jardueraren deskribapen laburra» apartatua”.

3.- Eskatutako informazioa bat al dator enpresek Caparrosoko abeltegitzarrerako eta hari lotutako biogas-instalaziorako duten ingurumen-baimen integratuaren titular diren aldetik enpresa horiei ezarritako ingurumen-baldintzak betetze aldera urtero eman behar dutenarekin?

Bat dator Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren II. eranskineko 11.2 puntuan adierazitakoarekin: «Urteroko martxoaren 1a baino lehen, titularrak hondakinak kudeatzeko jardueraren laburpen-txostena igorri beharko dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen 41. artikuluarekin bat etorriz, aurreko urteko datuak barne harturik».

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak indargabetu egin du Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea; bertan adierazten da txostena nahitaez aurkezteko beharrari 65. artikuluan eusten zaiola.

Eskatutako hondakinei buruzko datuak txostenean ageri dira, baina ez, ordea, ur-kontsumoari eta sortutako energiari buruzko datuak.

Bat dator abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategineko I. eranskineko 8. artikuluan ezarritakoarekin:

“3. Instalazioen titularrek, urtean behin gutxienez, kasuan kasuko autonomia-erkidegoari jakinaraziko dizkiote instalazioaren isurtzeei buruzko datuak. Zehaztu eginen dute zein metodologia erabili duten neurketak egiteko, zenbateko maiztasunarekin egin dituzten neurketak eta zein prozedura erabili dituzten horiek ebaluatzeko, eta, betiere, 22.1.i) artikuluan aipatzen den informazioa emanen dute.

5. Artikulu honetan arautzen den informazioa publikoa izanen da Ingurumen arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziarako irispidea izateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean ezarritakoarekin bat”.

Eta 22.1.i) artikuluan honako informazio hau jasotzen da:

“1. Isurtzeen kontrolaren emaitzetan oinarritutako informazioa, e) letran aipatzen dena, eta eskatutako beste datu batzuk, baimenaren baldintzak betetzen direla egiaztatzea ahalbidetuko diotenak organo eskudunari; eta

2. Aplikatzen diren mugako isurtze-balioek teknika erabilgarri onenei dagozkien mugako isurtze-balioak gainditzen badituzte, isurtzeen kontrolaren emaitzen laburpen bat, teknika erabilgarri onenei dagozkien isurtze-mailekin konparatzeko aukera emanen duena”.

Halaber, abenduaren 16ko 17/2020 Legearen, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituenaren, 61. artikuluan ezarritakoa bete behar da. Artikuluak komunikazio betebeharrak ezartzen ditu, eta adierazten du ingurumen arloko esku-har-

tzearen mende jarritako instalazioen titularrek adjudikazio eskudunari urtean behin jakinaraziko dizkiotela atmosferarako isuriei, hondakin-uren isuriei eta hondakin-sorkuntza eta -kudeaketari buruzko datuak.

4.- Departamentuan nork erabaki du eskatu zaion ingurumen-informazioa osorik ez ematea?

Bat etorriz azaroaren 15eko 255/2023 Foru Dekretuan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura oinarrizkoa ezartzekoan, xedatutakoarekin, Idazkaritza Tekniko Nagusiko Landa eta Ingurumen Estatistikaren eta Informazioaren Atalari dagokio ingurumen-informazioaren eta jendaurreko informazioaren eskaerak kudeatu eta izapidetzea, bai eta gardentasunari buruzko foru-arauaren arabera dauden betebeharrak ere.

Ingurumen-informazioaren eskaera jasota, informazioa duen Zerbitzura igortzen da, hura eman dezan. Kasu honetan, aurkeztutako eskaera Ekonomia Zirkular eta Berrikuntzako Zerbitzuko Ikuskapen Atalera igorri zen, erantzun zezan, baina, interes-gatazka planteatuta eskatzailearen eta enpresaren artean, dokumentazioa Ingurumen Departamentuko Araubide Juridikoaren Atalera igorri zen, balora zezan.

5.- Zergatik ez dira aintzat hartu eskatutako ingurumen-informazioa eman dadin Gardentasunaren Kontseiluak egindako 3 errekerimenduak?

2024ko abuztuaren 12an, aurkeztutako erreklamazioa helarazi zuen Gardentasunaren Kontseiluak; hau da, 2024ko apirilaren 23an aurkeztutako eskaerari Departamentuak ez erantzuteagatik aurkeztutakoa.

2024ko abuztuaren 13an, interesdunari lehen txostena igorri zitzaion, eskatutako datuetako batzuk barne hartuta.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren irailaren 9ko AR 41/2024 Erabakiaren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka jarritako erreklamazioa baietsi zen.

2024ko irailaren 12an, eskatzaileak idazki bat aurkeztu zuen Gardentasunaren Kontseiluan, eta haren bitartez adierazi zuen eskatutako informazioaren zati bat baino ez diotela eman; hain zuzen ere, 2., 3. eta 4. puntuei zegokiena, eta ukatu egin zaiola, berriz, 5. eta 6. puntuei dagokiena, eta modu arras orokorrean eman 1. puntuari dagokiona.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren azaroaren 11ko IE 05/2024 Erabakiaren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka izapidetutako AR 41/2024 Erabakia exekutatzeko intzidentea ebatzi zen, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari eskatu zitzaion irailaren 9ko AR 41/2024 Erabakia guztiz exekutatzeko, hau da, egiazta dezala erreklamazioaren esku jartzen dela eskaera osatzen duen informazioa.

2024ko azaroaren 19an, eskatzaileari beste txosten bat helarazi zitzaion, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko Ikuskapen Atalak egina.

2024ko azaroaren 28an, eskatzaileak idazkia aurkeztu zuen Gardentasunaren Kontseiluan, eta haren bidez adierazi zuen Departamentuak emandako informazioa ez zetorrela guztiz bat eskatutakoarekin.

2024ko abenduaren 19an, Ikuskapen Atalak beste txosten bat egin zuen Gardentasunaren Kontseiluari erantzuteko.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren otsailaren 3ko IE 03/2025 Erabakiaren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari eskatu zitzaion irailaren 9ko AR 41/2024 Erabakia guztiz exekutatzeko, hau da, egiazta dezala erreklamazioaren esku jartzen dela eskaera osatzen duen informazioa.

2025eko otsailaren 16an, Hibridación Termosolar Navarra SLk eta Valle de Odieta SCLk idazkia aurkeztu zuten, eta hauxe adierazi:

"Kontseiluan bertan idazkia aurkeztu da AR 41/2024 Erabakiari dagokionez, zeinak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka aurkeztutako erreklamazioa ebatzi baitzuen. Idazkiaren bidez, erabakia berrikusteko eskatu zen, erabat deuseza baita APAJLaren 47. artikuluarekin bat etorriz, hura ematean ez baita bete abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 19., 20. eta 24. artikuluetan ezarritakoa (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea), ezta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 39. eta 42. artikuluetan ezarritakoa ere, eta hemen agertzen diren erakundeei defentsa-gabezia sortzen dielako, defentsa eta entzunaldiko eskubideak urratzeagatik.

(...) Horregatik guztiagatik, ez da egokia Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren otsailaren 3ko IE 03/2025 Erabakian esandako informaziorako sarbidea ematea, irmoa ez den arte; gainera, errebokatu edo deuseztatu behar da, izan ere, haren jatorri den aurrekoa, exekutatzen duena, deuseza da. Hau da, otsailaren 3ko IE 03/2025 Erabakiak, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarenak, aurreko AR 41/2024 Erabakia

exekutatzen du, zeinaren bidez ebatzi baitzen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka jarritako erreklamazioa".

2025eko apirilaren 30ean, Hibridación Termosolar Navarra SLk eta Valle de Odieta SCLk eskabidea aurkeztu zuten, eta haren bidez adierazi zuten administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dutela Gardentasunaren Kontseiluaren otsailaren 3ko IE03/2025 Erabakiaren aurka, eta 5/2018 Foru Legearen 42.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ez dela egokia eskatutako informazioa ematea, harik eta aurkeztutako errekurtsoa ebazten den arte.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren maiatzaren 5eko IE 07/2025 Erabakiaren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari eskatu zitzaion irailaren 9ko AR 41/2024 Erabakia guztiz exekutatzeko, hau da, egiazta dezala erreklamazioaren esku jartzen dela eskaera osatzen duen informazioa.

2025eko maiatzaren 29an, informazio osoa igorri zaio erreklamaziogileari.

6.- Jabetzen al da departamentua nabarmenki urratzen ari dela Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikulua?

5/2018 Foru Legeak, maiatzaren 17koak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoak, 31. artikuluan ezartzen du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatzen ahalko dela bakarrik, baldin eta informazioa zabaltzea kaltegarria izan baliteke sekretu profesionalerako eta jabetza intelektual eta industrialerako.

Eta Foru Lege beraren 39. artikuluak ezartzen du informazio-eskaerak baiesteak hirugarrenen interesak kaltetzeko aukera dagoenean, ebazpena eman behar duen organoak hamabost eguneko epea emanen diela ukituei informazioa eskuratzeko berariazko baimena adieraz dezaten edo egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Horregatik, hain zuzen, Ekonomia Zirkular eta Berrikuntzako Zerbitzuak, enpresen datuak eskatzen dituzten aldiro, eskaerak helarazten dizkie berariazko baimena eman dezaten edo egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Artikulu horietan ezarritakoa aplikatzeak, HTN-Valle de Odieta SCL enpresen aurkako jarrerarekin batera, ekarri du eskatutako informazioa emateko atzerapena, eta informazioa jarri da gaurgero eskatzailearen esku.

7.- Departamentuak jaso al du Gardentasunaren Kontseiluaren aldetik hertsapen-isunik jarri izanaren jakinarazpenik eskatutako ingurumen-informazioa ez emateagatik?

Departamentuak ez du jaso Gardentasun Kontseiluaren aldetik hertsapen-isunik jarri izanaren jakinarazpenik eskatutako ingurumen-informazioa ez emateagatik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-25/PES-00226. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa berriz egiteari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa berriz egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00226 galdera egin zuen Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren edizio berria egiteari buruz, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Mondragon Unibertsitatearekiko hitzarmenaren baitako Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa berriro ematen baldin bada, Nafarroako hiru unibertsitateetakoren bat aintzat hartuko da ala berriro emanen da Mondragon Unibertsitatea unibertsitate pribatuaren bidez?

Ez da berriz eginen. Gaur egun, CEIN Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarrak antolatzen du ikastaroa.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

---

## 11-25/PES-00227. Galdera, Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren instalazioei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak kus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren instalazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00227 galdera egin zuen Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroaren instalazioei buruz, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Lekarozko campusean Ikus-entzunezko Ekintzailetza eta Berrikuntzako Unibertsitate Adituko Ikastaroa eman zen Mondragon Unibertsitatearekiko hitzarmenaren baitan, sektorearen beharrizanen justifikaziopean. Ikastaroan, baina, ez ziren campusean dauden zinemagintza-estudioen instalazioak erabili. Zergatik?

Berriz ere argitu behar da 2024tik ez dela ikastaro hori eman. Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak Lekarozko Murgiltze Linguistikorako Zentroa (CIL) erabiltzea erabaki zuen ikasturteak iraun zuen

asteburuetan, Nafarroako Gobernuaren berezko azpiegitura bat aprobetxatu ahal izateko. Azpiegitura hori, astean zehar, ingeleseko murgiltze linguistikoko programetarako erabiltzen da, baina asteburuetan ez zen inor egoten bertan, eta inork ez zuen eskatzen. Zentro hori Nasuvinsak kudeatzen du, eta ikasturtea behar bezala egin ahal izateko behar ziren baliabide guztiak zituen (diziplina anitzeko gelak, proiektoreak, gelak, bai eta otordu-zerbitzu osagarria eskaintzeko gaitasuna ere).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## 11-25/PES-00228. Galdera, Albyn-ekiko akordioan BEZa sartzearen ondorioei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Albyn-ekiko akordioan BEZa sartzearen ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak 11-25/PES-00228 idatzizko galdera egin zuen (2025eko ekainaren 3ko 202504542 irteera-zenbakia du Nafarroako Parlamentuan), informazioa eskatzeko Albyn-en akordioan BEZa sartzeak dituen ondorioei buruz, maskara gehiegi erosi izanak eragindako galeren konpentsazio partzial gisa. Bada, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Alderdiek (Sodena eta Albyn Medical) adostutako zenbatekoa, galderan islatzen dela dirudien moduan konpentsaziozkoa edo kalte-ordainekoa bada, akordio horrek ez luke eraginik izanen foru diru-kutxan, BEZik ez duen eragiketa bati bailegokio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 26.3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horrek ezartzen duenez, zergaren zerga-oinarrian ez dira sartuko kalte-ordainengatik jasotako zenbatekoak, baldin eta, beren izaera eta funtzioarengatik, zergari lotutako ondasun- edo zerbitzu-emateen kontraprestazio edo konpentsazio ez badira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez eta bidalitako informazioa konfidentziala dela adieraziz.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

# 11-25/PES-00229. Galdera, Cintruénigoko Udalaren eskaria jaso ondotik Gobernuko lehendakariak eta Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalak egindakoari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Cintruénigoko Udalaren eskaria jaso ondotik Gobernuko lehendakariak eta Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalak egindakoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak 11-25/PES-00229 idatzizko galdera egin du. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

– Gobernuko lehendakariak eta Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalak zer egin dute azken urte honetan Cintruénigoko Udalaren 2024ko apirilaren 22ko eskaria jaso ondoren?

1997an, Nafarroako Gobernuak Abatores aldeko lurzati berrantolamendua hasi zuen (Corellako eta Fiteroko udal-mugarteak eta kanpoan gelditu zen Cintruénigoko eremu bat). Jabetza ikertzean, berrantolatu beharreko eremua herri-ondasuna zela jakinarazi zen, Montes de Cierzo y Argenzón deitutakoetan baitago.

Interes orokorreko nekazaritza-azpiegituretan jarduketa oro egiteko, Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera, jarduketa egin beharreko azaleren titulartasuna zehaztu behar da aitzinetik.

Lehen txostenaren ondotik lankidetza-hitzarmena sinatu zen, 2000. urtean, Nafarroako Gobernuaren eta Zaragozako Unibertsitatearen artean. Eloy Colom Piazuelo irakasleak eta haren lantaldeak, 10 hilabetean lan egin ondotik, 50 liburukiko azterketa aurkeztu zuten, eta txostena 2003an berretsi zuen Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoak.

Agerian gelditu zen herri-lurren azalera hori datorrela Felipe IV.a erregeak herri hauei 1665ean egindako salmentatik: Tutera, Corella, Cintruénigo, Fitero, Cascante, Monteagudo eta Murchante. Lur horiek desamortizaziotik kanpo gelditu ziren herri-ondasunak zirelako. 1902. urtean, lursailak banandu ziren haien jabe ziren herrien artean.

Denboraren buruan, aprobetxamenduak partikularren Katastroetan jaso ziren, jabetzaren froga modura, horrela Jabetza Erregistroan sartzeko. Txostenek dioten bezala, aprobetxamendu-eskubidea sartu zen, eta inoiz ez jabetza.

Nafarroako Gobernuak ez zuen jarduketa gehiagorik egin harrezkero. Jarduerarik gabe 14 urte egon ondotik, Nafarroako Gobernuak, 2015 2019 legealdian, Erriberako ureztatzeko aukerak zehazteko parte-hartze prozesua zuzendu eta finantzatu zuen, eta hori, neurri handi batean, bat dator Montes de Cierzo y Argenzón-en perimetroarekin; hortaz, gaia berriz sortu zen; hau da, lurren titulartasuna zehaztu behar dela nekazaritzako azpiegituretan edozein jarduketa egin aitzin (kasurako, Nafarroako ubidearen 2. faseko eremu ureztagarriko obra egitea).

Ukitutako azalerak 7.276 hektarea ureztagarri hartzen ditu barne, eta 4.579 titular guztira. Cintruénigon 1.284 titular zeuden 1.935 hektareako azaleran, 3.174 lurzatitan.

Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko teknikariek arazoaren berri eman zieten ukitutako toki-entitateei, haien artean Cintruénigoko Udalari, zenbait bileratan.

Dagoen arazoa konpontzeko, bi aukera daude:

a) galdutako jabetza berreskuratzeko prozedura hastea, eta herri-lurren gainean dauden eskubideak amaitzea, edo

b) transakzio-hitzarmena sinatzea, eta bertan, auziak ekiditeko, partikularrei ordaina ematea azalera ehuneko batekin eta herri-lurrekin kargarik gabe gelditzen den zatian.

Corellako Udalak hitzarmen transakzionaleko oinarri orokorrak (Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren bidez berretsita) eta partikularrak onetsi ditu dagoeneko, eta Cintruénigoko Udalak jarduketarik hasi izanaren berririk ez dugu.

Cintruénigoko Udalaren 2024ko apirilaren 22ko eskaerarekin batera aurkeztutako txostenek, UPN-ren taldeak aipatutakoek, ez dute aurkezten Zaragozako Unibertsitatearen txostenean kontuan hartu ez den datu edo agiririk, eta halaxe erantzun zion Herri-lurren Atalak Udalari 2024ko urtarrilaren 17ko txostenean. Horrenbestez, indarrean segitzen du, erabat, Nafarroako Gobernuaren Aholkulari Juridikoaren 2003ko berreste-txostenak.

Cintruénigoko Udalak, herri-ondasunen titularrak, Herri-lurren Atalari ildo horretako ekimenik jakinarazten diolarik, Atalak, gainerako toki-entitateekin bezala, aholkularitza eta herri-ondasunen defentsa eginen ditu bere eskumenen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## Nafarroako Gobernuko lehendakariaren erantzuna

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak 11-25/PES-00229 galdera egin du. Galdera horri dagokionez:

Gobernuko lehendakariak eta Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalak zer egin dute azken urte honetan Cintruénigoko Udalaren 2024ko apirilaren 22ko eskaria jaso ondoren?

Cintruénigoko Udalak 2024ko apirilean jakinarazitakoaren ondotik egindako jarduketak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egin ditu bakarrik, hark baitu herri-lurren gaineko eskumena.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

# 11-25/PES-00230. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuro estimulatzaile elektriko bat erabiltzeko formakuntza eta bilketa zerbitzua gaitzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuro estimulatzaile elektriko bat erabiltzeko formakuntza eta bilketa zerbitzua gaitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-25/PES-00230 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuroestimulatzaile elektriko bat erabiltzeko prestakuntza eta txaplatak biltzeko zerbitzua gaitzea eragozten duten kausen gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Gaituta daude dagoeneko larruazalean zeharreko neuroestimulatzaile elektriko bat erabiltzeko prestakuntza eta txaplatak biltzeko zerbitzua Tuterako Reina Sofia ospitalean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

---

# 11-25/PES-00231. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuro estimulatzaile elektriko bat erabiltzeko txaplatak biltzeko zerbitzua gaitzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuro estimulatzaile elektriko bat erabiltzeko txaplatak biltzeko zerbitzua gaitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-25/PES-00231 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Tuterako Reina Sofía Ospitalean larruazalean zeharreko neuroestimulatzaile elektriko bat erabiltzeko txaplatak biltzeko zerbitzua gaitzearen gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Gaituta dago dagoeneko larruazalean zeharreko neuroestimulatzaile elektriko bat erabiltzeko txaplaten bilketa Tuterako Reina Sofia ospitalean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

---

# 11-25/PES-00232. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren aparteko laguntzak jaso ahal izateko legez ezarritako baldintzei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Lurralde Kohesiorako Departamentuaren aparteko laguntzak jaso ahal izateko legez ezarritako baldintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00232 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, toki-entitate batek muturreko fenomeno meteorologikoen kasuan Lurralde Kohesiorako Departamentuaren aparteko laguntzak edo dirulaguntzak eskuratzeko legez ezarritako baldintzei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

1. Legeak zer baldintza ezartzen ditu, toki-entitate batek muturreko fenomeno meteorologikoen kasuan Lurralde Kohesiorako Departamentuaren aparteko laguntzak edo dirulaguntzak jaso ahal izan ditzan?

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan honako tresna hauek daude:

• 8/2022 Foru Legearen 24. artikuluan arautzen den Tokiko Inbertsioen Planaren larrialdiko prozedura. Prozeduraren bidez hondamendien, arrisku larria dakarten egoeren eta segurtasun eta osasun publikoan eragina duten premien ondorioz beharrezko diren larrialdiko jarduketak finantzatzen dira honako hauen gaineko azpiegiturak eta zuzkidurak birjartzeko: uraren goi-hornidura, hondakinen tratamendua, zolatzeak, hornidura- eta saneamendu-sareak eta zuzkidurak.

• 11/2009 Foru Legea, urriaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonei laguntza eta babesa ematea.

4. artikuluan arautzen denez, hondamendiak ukituriko ondasun-higiezinen titularrak salbuetsirik egonen dira hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuziotik eta landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuziotik, hondamendia gertatu den urtean, baldin eta departamentu eskudunak ematen duen foru aginduan zerrendaturiko ukituriko udalerrietakoak badira.

7. artikuluan, ekipamendu eta azpiegitura publikoetan eginiko kalteen konpentsazioari buruzkoan, adierazten denez, ekipamendu eta azpiegitura publikoetan kalteak izanez gero, kaltetutako toki-entitateek lehentasuna izanen dute dagozkien laguntzak jasotzerakoan, kaltetutako elementuak berreraiki edo konpontzeko, lehen zituzten ezaugarrien arabera, eta beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko arrazoi berak direla-eta berriz kaltetuak ez izateko. Lehentasun hori departamentu eskudunak emandako foru agindu bidez ezarriko da.

2. Ba al dago denbora-tarte jakin batean gertatu beharreko gutxieneko prezipitazio kopururik aparteko laguntza horiek jaso ahal izateko?

Araudian ez dago gutxieneko baldintzarik. Nolanahi ere, laguntzak kalteekin lotuko dira, ez prezipitazio mailarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-25/PES-00233. Galdera, Basaburutik Iruñerrira etortzen diren ikasleen eskola-garraioari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Basaburutik Iruñerrira etortzen diren ikasleen eskola-garraioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-25-PES-00233 idatzizko galdera egin du. Bada, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galdera sortari erantzunez:

Galdera: 2025/2026 ikasturterako Lizitazioetan 320C ibilbide berria ageri da, zeinak Askatasunako eta Virgen del Caminoko ikasleak Basaburutik zuzenean eramaten baititu. Baina, bertan ageri denez, itzuleran, Virgen del Caminoko ikasleek Batxilergoko ordutegiarekin egin behar dute. 1,5 ordu egon behar dira garraioaren esperoan?

Erantzuna: Hala da, lizitazioan 320C ibilbidea ageri da; Basaburuko herrian gelditzen da, eta Burlatako Askatasuna BHIa eta Iruñeko Virgen del Camino IBPa ditu helmuga. Oharretan adierazten denez, zerbitzuaren ordutegia D ereduko Batxilergoko ikasleentzako ezarritakoa izanen da.

Oraingo 2024/2025 ikasturtean, Iruñeko Virgen del Camino IBPko ikasleek 14:15ean bukatzen dituzte eskolak, eta Burlatako Askatasuna BHIko ikasleek, berriz, 14:30ean ostiraletan, eta 15:25ean astelehenetik ostiralera bitartean.

Horrenbestez, planteamendu teorikoa izanen da Iruñeko Virgen del Camino IBPko ikasleak ostiraletan eskolak bukatuta hartzea, itxaron beharrik gabe. Astelehenetik ostegunera bitartean, 15:15 aldean hartuko dira, eskolak bukatu eta ordubeteren buruan, jarraian, Burlatako Askatasuna BHIko zerbitzua egiteko.

Gogoratu behar da 35/2022 Foru Arauak, maiatzaren 11koak, Hezkuntzako kontseilariak emanak, Nafarroan lehendabizikoz ezarri duela batxilergoko eta erdi mailako heziketa zikloetako ikasleek eskola-garraiorako eskubidea dutela, zenbait baldintzarekin (erreferentziako zentroak, distantziak, adinak, ibilbideko ikasle kopurua eta abar).

Eskola-garraiorako eskubideak bi modalitate ditu: Hezkuntza Departamentuak antolatu eta kudeaturiko garraio kolektiboa, eta garraiorako banakako laguntzak. Foru aginduak berak zehazten eta erabakitzen du zer ikaslek duten garraio modalitate bakoitzerako eskubidea eta zer baldintzarekin.

Zehazki, Batxilergoko ikasleei dagokienez, hauxe xedatzen du: «Hezkuntza Departamentuak antolatutako garraio kolektiboaren bidez emanen da eskola-garraioaren zerbitzua, eta, ezinezkoa bada, banakako laguntzak emanen dira». Adierazten du, orobat, honako hau: «oro har, ibilbidean gutxienez lau erabiltzaile daudenean antolatu eta kudeatuko da eskola-garraio kolektiboa. Batxilergoaren kasuan, gutxienez bederatzi erabiltzaile beharko dira».

Heziketa zikloetako ikasleei dagokienez, araua arrunt argia da: «erdi mailako heziketa zikloetan (...), banakako laguntzen bidez emanen da zerbitzua, salbu eta ikasleak Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetan sartzen badira».

Horrenbestez, Basaburuko Batxilergoko ikasleak beren eskolako autobus-ibilbidean (320C) joanen dira, beren ordutegian zalantzarik gabe, eta heziketa-zikloetako ikasleek, berriz, jada antolaturiko ibilbideetan sartzen badira izanen dute garraio-zerbitzua (kasu honetan, Burlatako Askatasuna BHIko D ereduko Batxilergoko ikasleentzako ibilbidea), eta sartzen ez badira, berriz, arau orokorra aplikatuko da, hau da, banakako laguntza eskatzen ahalko dute.

Galdera: Zein izanen dira 320C ibilbideko geltokien ordutegiak?

Erantzuna: Gaur egun, ez dugu informazio hori. Ikastetxeek beraiek eta enpresa adjudikaziohartzaileek koordinatzen dituzte egutegiak eta ordutegiak ikasturtea hasi aitzin, eta kudeaketa hori ez da egin oraindik.

Nolanahi ere, eskola-garraioaren lizitazioaren agiriek jada ezartzen dute «organo kontratatzailearen berariazko baimenik ezean, ikasleek ikastetxean itxaron beharreko denbora gehienez 15 minutukoa izanen dela. Halaber, ikasleek eskola-jarduera bukatzen denetik ikastetxean gehienez itxaronen duten denbora 10 minutu izanen da». Horrenbestez, ordutegi hipotetikoak kalkulatzen ahalko dira, erreferentziatzat sartzeko/ateratzeko ordua eta ibilbidea, ohiko zirkulazioarekin, egiteko behar den denbora.

Galdera: Zer gertatuko da Basaburuko Alaitz eta Donapeako ikasleekin, orain arte 346 eta 347 ibilbideetan joaten ziren horiekin? Lizitazioan ez dira agertzen. Eta garraioa jartzekotan, orain arte bezala jarraituko dute 4 orduko ibilbideak eginez?

Erantzuna: Heldu den ikasturteko lizitazioan 346 ibilbidea ez da ageri, aitzineko lizitazio batean adjudikatu delako. Kontratua 2025/2026 ikasturterako luzatu da. Lizitazioan 347 ibilbidea bai ageri dela, eta Igoa, Aizarotz eta Jauntsarats herrietan gelditzen da (besteak beste).

Bi ibilbideak elkarrekin konbinatzen dira Irurtzunen, eta ikasle-trukea dago. Orduan, ibilgailuetako bat Burlata eta Txantrea alderantz doa, eta beste ibilgailua, Barañain eta Donapearantz.

Lau orduko ibilbideak ekarriko luke zerbitzuak goizeko 4:30ak aldean hastea. Ez dago 4 orduko ibilbideko zerbitzurik. Ez Basaburuan, ezta Nafarroako beste toki batean ere.

Galdera: 90 minutu baino gehiago iraunen duten ibilbideak egonen dira, nahiz eta 50 km baino gutxiago izan?

Erantzuna: Baliteke ibilbideen ibilbide teorikoa azken orduan aldatzea garraio-premietan izaniko aldaketen arabera. Oraintxe bertan, 320C ibilbidearena bezalako zerbitzuan, adibidez —Basaburuko herri guztiak zeharkatzen ditu eta helmugatzat Burlatako Askatasuna BHIa eta Iruñeko Virgen del Camino IBPa ditu—, 65 kilometrotik goiti eta 90 minutu horien inguruko iraupena egonen dira.

Galdera: Zergatik erabiltzen da 24 plazako ibilgailua Basaburuko neska-mutilak garraiatzeko, 8-9 ikasle bakarrik badira? Ez al da hobe plaza gutxiago dituen ibilgailu bat erabiltzea?

Informazioa: Oraingo ikasturtean Basaburuko Batxilergoko 10 ikasle daude guztira Burlatako Askatasuna BHIan. Gainera, 4 ikasle gehiago daude Iruñeko Virgen del Camino IBPan, eta garraioa erabiltzen ahalko duen pertsona bat gehiago Iruñeko "Agroforestal" IBan. Orobat, 320C ibilbideak aurreikusirik du hipotetikoki Soraurenen gelditzea, ibilbidetik atera gabe, autobusa herri hartako ikasleak garraiatzeko aprobetxatu beharko balitzateke ere.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

# 11-25/PES-00234. Galdera, Nafarroan CorreosLabs sortzeko lankidetza-akordioari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroan CorreosLabs sortzeko lankidetza-akordioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-25/00234) Nafarroan CorreosLabs sortzeko lankidetza-akordioari buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut galderei erantzunez:

Correos enpresak CorreosLabsen proiektua ezetsi zuen, gastuak murrizteko politika alegatuta.

Nafarroako Gobernuaren konpromisoa da oraindik lanean jarraitzea Nafarroa berrikuntzaren arloko punta-puntako lurraldea izan dadin, bertako ekosistema sustatuz, bai eta Foru Komunitatean enpresa berritzaileak sortu eta garatu daitezen ere.

Hori jakinarazten dut, epeak eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

---

# 11-25/PES-00235. Galdera, Atzerriko Hizkuntzako Curriculuma saioei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak Atzerriko Hizkuntzako Curriculuma saioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 11-25/PES-00235 idatzizko galdera egin du. Bada, Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

57/2024 Foru Aginduak, maiatzaren 24koak, hezkuntza kontseilariak emanak, Nafarroako Foru Komunitateko haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituenak, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen garapena eta ematen dituzten ikastetxeen funtzionamendua arautzen ditu apirilaren 26ko 43/2023 Foru Dekretuan, Atzerriko hizkuntzetan ikasteko programen oinarrizko alderdiak arautzekoak, ezarritakoaren ildotik.

Egia bada ere, galderan adierazi bezala, foru agindu horren 5. artikuluak honako hau esaten duela: «Curriculuma atzerriko hizkuntzan osatzeko saioak atzerriko hizkuntzako edukiak indartzera bideratzen ahal dira, baina atzerriko hizkuntzan emateko aukeratzen den beste edozein irakasgaitakoak indartzeko ere baliatzen ahal dira», garrantzitsua da adieraztea artikulu horretako 4. puntuak, eta 5. puntuaren aitzinetik, hauxe esaten duela: «4. Lehen Hezkuntzan, 2. puntuan

ezarritako gutxieneko saio kopurura iristeko, ingelesez, frantsesez edo alemanez emanen dira, orokorrean, arlo hauetako edukiak:

–Atzerriko Hizkuntza.

–Curriculuma Atzerriko Hizkuntzan.

–Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezagutza; honela banatzeko aukera ere badago:

batetik, Natur Zientziak; bestetik, Gizarte Zientziak».

Puntu horrek, eta 5. puntuak esandakoaren aitzinetik, ezartzen ditu jada orokorrean ingelesez, frantsesez edo alemanez ematen ahal diren arloak, eta haien artean ez dago ez gorputz hezkuntza, ezta musika ere.

Artikulu honetako 8. puntuak honako hau dio: «8. 4. puntuan adierazitakoez gain, beste arlo batzuk ere atzerriko hizkuntzetan eman nahi dituzten ikastetxeek hizkuntza gaietan eskumena duen zerbitzuaren baimenaren medioz egiten ahalko dute hori, hezkuntza ikuskaritzaren arloan eskumena duen zerbitzuak aldeko txostena eman ondoren betiere».

Horri dagokionez, adierazi behar dugu Hezkuntza Departamentuak irizpide gisa ezarri duela ikastetxeek 4. puntuan adierazitakoez gain bestelako arloak ere eman ahal izatea atzerriko hizkuntzan, betiere plantilla organikoan dagokion hizkuntza-gaikuntza duten irakasleak badituzte.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

# 11-25/PES-00236. Galdera, laborategien zerbitzua kanpoan kontratatzeari buruz Osasuneko kontseilariak adierazitakoari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak laborategien zerbitzua kanpoan kontratatzeari buruz Osasuneko kontseilariak adierazitakoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-25/PES-00236 informazioeskaera egin du galdetzeko ea Osasuneko kontseilariak oraindik uste duen, Nafarroako Parlamentuak maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran adierazi zuen bezala, 2015ean «UPNk laborategiak azpikontratatu nahi zituela» eta hori esateko zertan oinarritzen den. Bada, Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Ez. iragan ostegunean, ekainaren 12an, eginiko kontrolerako osoko bilkuran jendaurrean adierazi bezala, nire erantzunean esan nuen «laborategiak» Tuteran «azpikontratatu nahi zituztela», baina termino zuzena «bateratu» izan behar zela».

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

# 11-25/PES-00237. Galdera, Latasako hondakin-uren araztegian kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamenduari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Latasako hondakin-uren araztegian kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00237 idatzizko galdera egin du, Latasako hondakin-uren araztegian kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamenduari buruzkoa. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galdera sortari erantzunez:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer jarraipen egin du Latasako hondakin-uren araztegian kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamendua jarri zenetik?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eginiko jarraipenak oinarritzat hartu du azaleko uren (ibaiak) kalitate fisiko-kimikoaren aldizkako kontrol-sarearen barruan lorturiko datu analitikoen analisia.

Sareak azaleko uren kalitatearen aldizkako kontrolerako puntuak ditu Nafarroako sare hidrografikoan zehar. Kontrol-datuak daude 1970eko hamarkadaz geroztik, eta horri esker, datuen historia dago, zeinak ahalbidetzen baitu neurturiko kalitate-parametroen aldaketak antzematea.

Sareko datuak barne harturiko urteko memoriak hemen argitaratzen dira:

https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/RedFisicoQuimica.htm

Latasako HUAetan kloruro ferrikoaz eginiko tratamenduaren jarraipena egiteko, honako kontrol-puntu hauek hautatu dira:

| KOD | IZENA | X KOORD | Y KOORD | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|
| 92203000 | Ultzama Lizason | 607875 | 4758001 | Latasako HUAko isurketaren aitzineko lehen kontrol-puntua |
| 92204000 | Ultzama Ziaurritzen | 611337 | 4753829 | Latasako HUAko isurketaren ondotiko lehen kontrol-puntua |

Tratamendu hori bakarrik aplikatzen da Ultzamako fosfato-mailak handiak izan balitezke, eta, ondorioz, murriztu behar badira; emari apaletako aldietan gertatzen da, diluzioa txikia izanik handitu egiten baita kontzentrazioa. 2024an, tratamendua 2024/09/11tik 2024/11/21era arteko aldian aplikatu da, eta aldi horretan kontrol-puntuen bi laginketa analitiko egin dira: 2024/10/14an eta 2024/11/18an.

2025. urteari dagokionez, fosforoa ezabatzeko tratamendua ekainean abiarazi da, eta orduan hasi dira jaisten emari-mailak; horregatik, ez dugu oraindik jarraipenaren gaineko informaziorik.

2. Departamentuak zer ebaluazio egiten du eutrofizazioa murriztearren ezarritako tratamenduaren eraginkortasunari buruz?

2024an tratamendua aplikatzeko aldian eginiko laginketa analitikoak aztertu eta bi kontrol-puntuen datu historikoekin alderatu ondotik, honako ebaluazio hau egiten da:

Bi kontrol-puntuetan lorturiko fosfatoaren emaitzak hautatu dira, eta bien arteko aldea eskuratu da, ibai zati horretan parametroaren zer-nolako aldaketa egon den jakiteko. Aldaketa HUAko isurketarekin lotuta dago, ibai tarte horretako zuzeneko isurtze-puntu bakarra baita. Fosfatoaren ($PO_4$)

parametroa hautatu da, fosforoa batez ere forma horretan baitago uretan disolbaturik, eta Latasako HUAk eginiko fosforo-isurietan izaniko hobekuntzen erakusgarri izan behar da. 1. eranskinean erantzun hauetan erabiliriko datu guztiak erakusten dira.

Datuetatik tratamendua aplikaturiko hilabeteetakoak (iraila, urria eta azaroa) hautatu dira, emaitzetan alborapenik egon ez dadin ibaiaren diluzio-emariaren arabera (urteko garaiaren arabera aldatzen da). Hori horrela, ebaluatu egin da zer aldaketa egon den tratamendua aplikatu aitzineko aldien eta Latasako HUAn 2024an aplikatzeko aldiaren artean. Emaitza hauek lortu ditugu:

| Fosfato-aldeak goiko eta beheko puntuen artean | 2024an tratamendua aplikatu ondotik | 2009 – 2023 aldia (15 urte) | 2019 – 2023 aldia (5 urte) | 2024ko hobekuntza (%) 2009-2023 aldiarekin alderatuta | 2024ko hobekuntza (%) 2019-2023 aldiarekin alderatuta |
|---|---|---|---|---|---|
| Batezbestekoa [$PO_4$] | 0,11 mg/l | 0,32 mg/l | 0,20 mg/l | % 65 | % 44 |
| Gehienekoa [$PO_4$] | 0,15 mg/l | 1,70 mg/l | 0,93 mg/l | % 91 | % 84 |

Hau da, tratamendua aplikatzeko aldian fosfato-gehikuntzaren murriztapen nabarmena gertatu da aztergai izaniko ibai zatian. Murriztapena % 65etik % 44ra artekoa izan da batez beste, aztertutako datu seriearen arabera, eta % 91tik % 84ra arteko murriztapena lortu da, berriz, datu seriearen gehienekoetarako.

Horrenbestez, aitzineko emaitzetan oinarriturik, aplikaturiko tratamenduaren efikaziaren gaineko balorazio positiboa egiten dugu, ahalbidetu baitu Ultzama ibaian fosfato-kontzentrazioa nabarmen murriztea Latasako HUAtik uretan beheiti. Gainera, murriztapen hori aplikatzen da ibaiaren kalteberatasun handieneko unean, agorraldiko emari apalen ondorioz txikiagoa baita ibaiaren disoluzio- eta asimilazio-ahalmena.

Tratamendua aplikaturiko aldian Ziaurrizko kontrol-puntuan lorturiko bi laginen fosforo-kontzentrazioa 0,2 mg/l-tik beheitikoa izan da. Hain zuzen ere, muga horri Oso Ona irizten dio 817/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitatearen gaineko arauak ezartzen dituenak.

Gogora ekar dezagun fosforoa dela, nitrogenoarekin batera, ibaietan eutrofizazioaren eragile nagusia; hau da, ibai-ibilguetan algak ugaritzea eta horrek arriskuan jartzea edateko uraren hornidura, bai eta ekosistemen oreka ere.

3. Hobekuntzarik hauteman al da Ultzama ibaiaren egoera ekologikoan tratamendua hasi ondoren, eta, hala baldin bada, zer parametrok adierazten dute hori?

Bigarren galderari emaniko erantzunean adierazirikoa berresten dut hemen.

## *1. eranskina: 92203000 eta 92204000 kontrol-puntuetako fosfato-datuak*

| est | fecha | hora | laboratorio | n_analisis | $PO_4$ (mg/l) |
|---|---|---|---|---|---|
| 92203000 | 04/02/2009 | 12:50:00 | ADIRONDACK | MS1040-09-1148 | 0,079 |
| 92203000 | 04/03/2009 | 13:45:00 | ADIRONDACK | MS1202-09-1859 | 0,135 |
| 92203000 | 29/04/2009 | 13:40:00 | ADIRONDACK | MS1503-09-3475 | 0,115 |
| 92203000 | 27/05/2009 | 13:10:00 | ADIRONDACK | MS1691-09-4343 | 0,253 |
| 92203000 | 16/06/2009 | 11:30:00 | ADIRONDACK | MS1868-09-5349 | 0,16 |
| 92203000 | 04/08/2009 | 13:00:00 | ADIRONDACK | MS2190-09-6995 | 0,085 |
| 92203000 | 08/09/2009 | 11:35:00 | ADIRONDACK | MS2477-09-8238 | 0,082 |
| 92203000 | 28/10/2009 | 13:45:00 | ADIRONDACK | MS2776-09-9572 | 0,069 |
| 92203000 | 25/11/2009 | 13:00:00 | ADIRONDACK | MS2955-09-10612 | 0,05 |
| 92203000 | 03/02/2010 | 13:10:00 | CNTA | 1002677 | 0,05 |
| 92203000 | 03/03/2010 | 13:45:00 | CNTA | 1005205 | 0,05 |
| 92203000 | 28/04/2010 | 13:25:00 | CNTA | 1010541 | 0,06 |
| 92203000 | 25/05/2010 | 13:45:00 | CNTA | 1013713 | 0,05 |
| 92203000 | 15/06/2010 | 12:25:00 | CNTA | 1016429 | 0,05 |
| 92203000 | 03/08/2010 | 14:15:00 | CNTA | 1021074 | 0,078 |
| 92203000 | 07/09/2010 | 11:20:00 | CNTA | 1024191 | 0,05 |
| 92203000 | 27/10/2010 | 14:20:00 | CNTA | 1030103 | 0,05 |
| 92203000 | 17/11/2010 | 13:50:00 | CNTA | 1032183 | 0,078 |
| 92203000 | 02/02/2011 | 13:30:00 | CNTA | 1102837 | 0,05 |
| 92203000 | 02/03/2011 | 13:20:00 | CNTA | 1105483 | 0,092 |
| 92203000 | 25/05/2011 | 14:00:00 | CNTA | 1114286 | 0,059 |
| 92203000 | 15/06/2011 | 12:20:00 | CNTA | 1116681 | 0,05 |
| 92203000 | 02/08/2011 | 13:30:00 | CNTA | 1121051 | 0,05 |
| 92203000 | 14/09/2011 | 9:50:00 | CNTA | 1125678 | 0,05 |
| 92203000 | 25/10/2011 | 13:25:00 | CNTA | 1130533 | 0,05 |
| 92203000 | 22/11/2011 | 14:15:00 | CNTA | 1133864 | 0,05 |
| 92203000 | 01/02/2012 | 13:40:00 | CNTA | 1202760 | 0,2 |
| 92203000 | 15/02/2012 | 13:20:00 | CNTA | 1204321 | 0,061 |
| 92203000 | 25/04/2012 | 14:00:00 | CNTA | 1211595 | 0,05 |

| est | fecha | hora | laboratorio | n_analisis | $PO_4$ (mg/l) |
|---|---|---|---|---|---|
| 92203000 | 30/05/2012 | 12:40:00 | CNTA | 1215731 | 0,05 |
| 92203000 | 25/07/2012 | 14:05:00 | CNTA | 1221382 | 0,05 |
| 92203000 | 05/09/2012 | 11:50:00 | CNTA | 1225379 | 0,13 |
| 92203000 | 02/10/2012 | 13:20:00 | CNTA | 1228584 | 0,05 |
| 92203000 | 30/10/2012 | 14:05:00 | CNTA | 1231932 | 0,05 |
| 92203000 | 08/05/2013 | 13:00:00 | CNTA | 1312523 | 0,05 |
| 92203000 | 29/05/2013 | 12:45:00 | CNTA | 1315133 | 0,089 |
| 92203000 | 22/07/2013 | 12:00:00 | CNTA | 1320699 | 0,05 |
| 92203000 | 21/08/2013 | 13:20:00 | CNTA | 1323540 | 0,29 |
| 92203000 | 11/09/2013 | 11:40:00 | CNTA | 1325773 | 0,05 |
| 92203000 | 16/10/2013 | 13:40:00 | CNTA | 1330377 | 0,05 |
| 92203000 | 25/11/2013 | 13:55:00 | CNTA | 1335683 | 0,05 |
| 92203000 | 11/12/2013 | 13:20:00 | CNTA | 1337352 | 0,05 |
| 92203000 | 20/03/2014 | 13:30:00 | CNTA | 1410110 | 0,05 |
| 92203000 | 02/04/2014 | 13:20:00 | CNTA | 1411891 | 0,05 |
| 92203000 | 07/05/2014 | 13:35:00 | CNTA | 1416767 | 0,05 |
| 92203000 | 28/05/2014 | 12:00:00 | CNTA | 1420297 | 0,08 |
| 92203000 | 23/07/2014 | 13:15:00 | CNTA | 1428273 | 0,22 |
| 92203000 | 10/09/2014 | 11:40:00 | CNTA | 1434648 | 0,054 |
| 92203000 | 15/10/2014 | 13:35:00 | CNTA | 1441704 | 0,078 |
| 92203000 | 12/11/2014 | 13:20:00 | CNTA | 1446804 | 0,05 |
| 92203000 | 30/03/2015 | 12:40:00 | CNTA | 1513171 | 0,05 |
| 92203000 | 29/04/2015 | 13:00:00 | CNTA | 1517612 | 0,05 |
| 92203000 | 27/05/2015 | 13:05:00 | CNTA | 1522877 | 0,05 |
| 92203000 | 17/06/2015 | 11:45:00 | CNTA | 1526214 | 0,05 |
| 92203000 | 12/08/2015 | 13:25:00 | CNTA | 1534970 | 0,05 |
| 92203000 | 09/09/2015 | 11:45:00 | CNTA | 1539687 | 0,05 |
| 92203000 | 14/10/2015 | 13:15:00 | CNTA | 1546148 | 0,063 |
| 92203000 | 11/11/2015 | 13:30:00 | CNTA | 1551690 | 0,059 |
| 92203000 | 03/02/2016 | 13:15:00 | CNTA | 1605213 | 0,092 |
| 92203000 | 03/03/2016 | 14:20:00 | CNTA | 1610413 | 0,12 |
| 92203000 | 11/04/2016 | 12:50:00 | CNTA | 1617482 | 0,05 |
| 92203000 | 11/05/2016 | 12:50:00 | CNTA | 1624803 | 0,05 |
| 92203000 | 22/06/2016 | 12:10:00 | CNTA | 1632399 | 0,13 |
| 92203000 | 04/08/2016 | 15:00:00 | CNTA | 1639396 | 0,11 |
| 92203000 | 29/09/2016 | 13:05:00 | CNTA | 1649426 | 0,05 |
| 92203000 | 15/11/2016 | 12:15:00 | CNTA | 1657822 | 0,05 |
| 92203000 | 04/04/2017 | 11:10:00 | LTL | 17CA01006 | 0,05 |
| 92203000 | 09/05/2017 | 11:45:00 | LTL | 17CA01277 | 0,05 |
| 92203000 | 06/06/2017 | 11:20:00 | LTL | 17CA01234 | 0,0779 |
| 92203000 | 22/06/2017 | 9:30:00 | LTL | 17CA01581 | 0,05 |
| 92203000 | 08/08/2017 | 10:25:00 | LTL | 17CA01356 | 0,149 |
| 92203000 | 26/09/2017 | 12:15:00 | LTL | 17CA02318 | 0,05 |
| 92203000 | 24/10/2017 | 12:05:00 | LTL | 17CA02524 | 0,0732 |
| 92203000 | 21/11/2017 | 13:30:00 | LTL | 17CA02618 | 0,05 |
| 92203000 | 30/01/2018 | 12:50:00 | LTL | 18CA00094 | 0,05 |
| 92203000 | 13/03/2018 | 12:40:00 | LTL | 18CA00949 | 0,05 |
| 92203000 | 24/04/2018 | 11:50:00 | LTL | 18CA00188 | 0,05 |
| 92203000 | 05/06/2018 | 12:20:00 | LTL | 18CA01144 | 0,723 |
| 92203000 | 19/07/2018 | 12:55:00 | LTL | 18CA00285 | 0,159 |
| 92203000 | 13/08/2018 | 11:25:00 | LTL | 18CA01268 | 0,05 |
| 92203000 | 25/09/2018 | 12:10:00 | LTL | 18CA00379 | 0,05 |
| 92203000 | 06/11/2018 | 11:20:00 | LTL | 18CA01017 | 0,0598 |

| est | fecha | hora | laboratorio | n_analisis | $PO_4$ (mg/l) |
|---|---|---|---|---|---|
| 92203000 | 28/03/2019 | 12:00:00 | LTL | 19CA00451 | 0,05 |
| 92203000 | 25/04/2019 | 13:30:00 | LTL | 19CA00629 | 0,05 |
| 92203000 | 24/05/2019 | 11:33:00 | LTL | 19CA01013 | 0,059 |
| 92203000 | 04/07/2019 | 9:40:00 | LTL | 19CA01255 | 0,05 |
| 92203000 | 08/08/2019 | 13:15:00 | LTL | 19CA01448 | 0,155 |
| 92203000 | 12/09/2019 | 12:00:00 | LTL | 19CA01742 | 0,109 |
| 92203000 | 03/10/2019 | 10:40:00 | LTL | 19CA02156 | 0,444 |
| 92203000 | 11/11/2019 | 9:55:00 | LTL | 19CA02279 | 0,107 |
| 92203000 | 28/01/2020 | 14:00:00 | LTL | 20CA00013 | 0,05 |
| 92203000 | 10/03/2020 | 11:45:00 | LTL | 20CA00311 | 0,05 |
| 92203000 | 21/04/2020 | 13:40:00 | LTL | 20CA01549 | 0,05 |
| 92203000 | 02/06/2020 | 12:05:00 | LTL | 20CA01916 | 0,15 |
| 92203000 | 30/07/2020 | 12:20:00 | LTL | 20CA03864 | 0,05 |
| 92203000 | 08/09/2020 | 12:30:00 | LTL | 20CA05367 | 0,007 |
| 92203000 | 20/10/2020 | 13:15:00 | LTL | 20CA06663 | 0,0113 |
| 92203000 | 17/11/2020 | 11:30:00 | LTL | 20CA07129 | 0,618 |
| 92203000 | 14/04/2021 | 13:30:00 | LTL | 21CA03093 | 0,007 |
| 92203000 | 06/05/2021 | 11:45:00 | LTL | 21CA03193 | 0,007 |
| 92203000 | 03/06/2021 | 12:30:00 | LTL | 21CA06297 | 0,007 |
| 92203000 | 01/07/2021 | 11:45:00 | LTL | 21CA06766 | 0,0218 |
| 92203000 | 03/08/2021 | 11:15:00 | LTL | 21CA07227 | 0,0035 |
| 92203000 | 31/08/2021 | 11:40:00 | LTL | 21CA08535 | 0,00771 |
| 92203000 | 05/10/2021 | 12:40:00 | LTL | 21CA10859 | 0,00759 |
| 92203000 | 09/11/2021 | 12:20:00 | LTL | 21CA12641 | 0,007 |
| 92203000 | 10/02/2022 | 12:10:00 | LTL | 22CA00600 | 0,007 |
| 92203000 | 10/03/2022 | 13:35:00 | LTL | 22CA01962 | 0,0309 |
| 92203000 | 03/05/2022 | 11:00:00 | LTL | 22CA04276 | 0,007 |
| 92203000 | 16/06/2022 | 11:57:13 | LTL | 22CA06511 | 0,007 |
| 92203000 | 21/07/2022 | 11:04:37 | LTL | 22CA06734 | 0,0115 |
| 92203000 | 08/09/2022 | 12:32:30 | LTL | 22CA08848 | 0,007 |
| 92203000 | 20/10/2022 | 12:40:24 | LTL | 22CA10935 | 0,007 |
| 92203000 | 08/11/2022 | 10:56:37 | LTL | 22CA11999 | 0,0106 |
| 92203000 | 20/02/2023 | 11:05:00 | LTL | 23CA01207 | 0,007 |
| 92203000 | 20/03/2023 | 12:00:00 | LTL | 23CA02186 | 0,0441 |
| 92203000 | 22/05/2023 | 11:25:16 | LTL | 23CA04280 | 0,007 |
| 92203000 | 03/07/2023 | 11:28:10 | LTL | 23CA05337 | 0,0108 |
| 92203000 | 03/08/2023 | 10:10:57 | LTL | 23CA07305 | 0,132 |
| 92203000 | 31/08/2023 | 9:30:00 | LTL | 23CA08159 | 0,0808 |
| 92203000 | 23/10/2023 | 11:50:00 | LTL | 23CA10159 | 0,0857 |
| 92203000 | 20/11/2023 | 12:20:00 | LTL | 23CA11124 | 0,0222 |
| 92203000 | 15/01/2024 | 11:25:26 | LTL | 23CA12372 | 0,00744 |
| 92203000 | 12/02/2024 | 11:22:17 | LTL | 24CA00709 | 0,007 |
| 92203000 | 15/04/2024 | 11:15:09 | LTL | 24CA02952 | 0,007 |
| 92203000 | 20/05/2024 | 11:49:48 | LTL | 24CA05437 | 0,121 |
| 92203000 | 20/06/2024 | 11:00:00 | LTL | 24CA06717 | 0,166 |
| 92203000 | 22/08/2024 | 12:05:00 | LTL | 24CA08548 | 0,00912 |
| 92203000 | 14/10/2024 | 10:55:21 | LTL | 24CA11665 | 0,0398 |
| 92203000 | 18/11/2024 | 11:50:39 | LTL | 24CA12787 | 0,007 |

*Fosfato-datuak 92203000 kontrol-puntuan(Ultzama Lizason), HUAtik uretan goiti.*

| est | fecha | hora | laboratorio | n_analisis | $PO_4$ (mg/l) | Diferencia entre puntos (mg/l) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 92204000 | 04/02/2009 | 13:30:00 | ADIRONDACK | MS1040-09-1149 | 0,125 | 0,046 |
| 92204000 | 04/03/2009 | 14:30:00 | ADIRONDACK | MS1202-09-1860 | 0,161 | 0,026 |
| 92204000 | 29/04/2009 | 14:20:00 | ADIRONDACK | MS1503-09-3476 | 0,105 | -0,01 |
| 92204000 | 27/05/2009 | 13:40:00 | ADIRONDACK | MS1691-09-4344 | 0,361 | 0,108 |
| 92204000 | 16/06/2009 | 12:25:00 | ADIRONDACK | MS1868-09-5350 | 0,7 | 0,54 |
| 92204000 | 04/08/2009 | 13:45:00 | ADIRONDACK | MS2190-09-6996 | 1,19 | 1,105 |
| 92204000 | 08/09/2009 | 12:30:00 | ADIRONDACK | MS2477-09-8239 | 1 | 1,316 |
| 92204000 | 28/10/2009 | 14:15:00 | ADIRONDACK | MS2776-09-9573 | 0,513 | 0,444 |
| 92204000 | 25/11/2009 | 13:50:00 | ADIRONDACK | MS2955-09-10613 | 0,259 | 0,209 |
| 92204000 | 03/02/2010 | 15:30:00 | CNTA | 1002678 | 0,078 | 0,028 |
| 92204000 | 03/03/2010 | 14:15:00 | CNTA | 1005206 | 0,083 | 0,033 |
| 92204000 | 28/04/2010 | 13:50:00 | CNTA | 1010542 | 0,262 | 0,202 |
| 92204000 | 25/05/2010 | 14:15:00 | CNTA | 1013714 | 0,141 | 0,091 |
| 92204000 | 15/06/2010 | 13:25:00 | CNTA | 1016430 | 0,302 | 0,252 |
| 92204000 | 03/08/2010 | 14:55:00 | CNTA | 1021075 | 0,8 | 0,722 |
| 92204000 | 07/09/2010 | 12:00:00 | CNTA | 1024192 | 1,158 | 1,108 |
| 92204000 | 27/10/2010 | 14:40:00 | CNTA | 1030104 | 0,339 | 0,289 |
| 92204000 | 17/11/2010 | 14:30:00 | CNTA | 1032184 | 0,158 | 0,08 |
| 92204000 | 02/02/2011 | 14:05:00 | CNTA | 1102838 | 0,096 | 0,046 |
| 92204000 | 02/03/2011 | 14:00:00 | CNTA | 1105484 | 0,05 | -0,042 |
| 92204000 | 25/05/2011 | 14:40:00 | CNTA | 1114287 | 0,33 | 0,271 |
| 92204000 | 15/06/2011 | 13:10:00 | CNTA | 1116682 | 0,27 | 0,22 |
| 92204000 | 02/08/2011 | 14:15:00 | CNTA | 1121052 | 0,38 | 0,33 |
| 92204000 | 14/09/2011 | 9:25:00 | CNTA | 1125679 | 1,75 | 1,7 |
| 92204000 | 25/10/2011 | 14:00:00 | CNTA | 1130534 | 0,84 | 0,79 |
| 92204000 | 22/11/2011 | 14:50:00 | CNTA | 1133865 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 01/02/2012 | 14:15:00 | CNTA | 1202761 | 0,42 | 0,22 |
| 92204000 | 15/02/2012 | 15:10:00 | CNTA | 1204322 | 0,11 | 0,049 |
| 92204000 | 25/04/2012 | 14:35:00 | CNTA | 1211602 | 0,077 | 0,027 |
| 92204000 | 30/05/2012 | 13:25:00 | CNTA | 1215732 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 25/07/2012 | 14:30:00 | CNTA | 1221383 | 0,51 | 0,46 |
| 92204000 | 05/09/2012 | 12:50:00 | CNTA | 1225380 | 0,88 | 0,75 |
| 92204000 | 02/10/2012 | 13:50:00 | CNTA | 1228585 | 0,17 | 0,12 |
| 92204000 | 30/10/2012 | 14:40:00 | CNTA | 1231933 | 0,08 | 0,03 |
| 92204000 | 08/05/2013 | 13:30:00 | CNTA | 1312524 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 29/05/2013 | 13:20:00 | CNTA | 1315134 | 0,08 | -0,009 |
| 92204000 | 22/07/2013 | 12:50:00 | CNTA | 1320700 | 0,15 | 0,1 |
| 92204000 | 21/08/2013 | 13:55:00 | CNTA | 1323541 | 0,33 | 0,04 |
| 92204000 | 11/09/2013 | 12:20:00 | CNTA | 1325774 | 0,19 | 0,14 |
| 92204000 | 16/10/2013 | 14:05:00 | CNTA | 1330378 | 0,35 | 0,3 |
| 92204000 | 25/11/2013 | 14:05:00 | CNTA | 1335684 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 11/12/2013 | 13:50:00 | CNTA | 1337353 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 20/03/2014 | 13:55:00 | CNTA | 1410111 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 02/04/2014 | 14:00:00 | CNTA | 1411892 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 07/05/2014 | 14:00:00 | CNTA | 1416768 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 28/05/2014 | 12:50:00 | CNTA | 1420298 | 0,052 | -0,028 |
| 92204000 | 23/07/2014 | 13:40:00 | CNTA | 1428274 | 0,13 | -0,09 |
| 92204000 | 10/09/2014 | 12:15:00 | CNTA | 1434649 | 0,32 | 0,266 |
| 92204000 | 15/10/2014 | 14:05:00 | CNTA | 1441705 | 0,3 | 0,222 |
| 92204000 | 12/11/2014 | 13:45:00 | CNTA | 1446805 | 0,19 | 0,14 |
| 92204000 | 30/03/2015 | 13:15:00 | CNTA | 1513172 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 29/04/2015 | 13:35:00 | CNTA | 1517613 | 0,05 | 0 |

| est | fecha | hora | laboratorio | n_analisis | $PO_4$ (mg/l) | Diferencia entre puntos (mg/l) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 92204000 | 27/05/2015 | 13:45:00 | CNTA | 1522878 | 0,096 | 0,046 |
| 92204000 | 17/06/2015 | 12:35:00 | CNTA | 1526215 | 0,065 | 0,015 |
| 92204000 | 12/08/2015 | 13:55:00 | CNTA | 1534971 | 0,39 | 0,34 |
| 92204000 | 09/09/2015 | 12:30:00 | CNTA | 1539688 | 0,33 | 0,28 |
| 92204000 | 14/10/2015 | 13:45:00 | CNTA | 1546149 | 0,61 | 0,547 |
| 92204000 | 11/11/2015 | 14:00:00 | CNTA | 1551691 | 0,19 | 0,131 |
| 92204000 | 03/02/2016 | 13:45:00 | CNTA | 1605214 | 0,13 | 0,038 |
| 92204000 | 03/03/2016 | 14:50:00 | CNTA | 1610414 | 0,15 | 0,03 |
| 92204000 | 11/04/2016 | 13:30:00 | CNTA | 1617483 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 11/05/2016 | 13:30:00 | CNTA | 1624804 | 0,11 | 0,06 |
| 92204000 | 22/06/2016 | 11:50:00 | CNTA | 1632400 | 0,3 | 0,17 |
| 92204000 | 04/08/2016 | 14:40:00 | CNTA | 1639397 | 0,56 | 0,45 |
| 92204000 | 29/09/2016 | 13:40:00 | CNTA | 1649427 | 0,72 | 0,67 |
| 92204000 | 15/11/2016 | 12:50:00 | CNTA | 1657823 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 04/04/2017 | 10:55:00 | LTL | 17CA01007 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 09/05/2017 | 12:25:00 | LTL | 17CA01278 | 0,192 | 0,142 |
| 92204000 | 06/06/2017 | 11:00:00 | LTL | 17CA01235 | 0,239 | 0,1611 |
| 92204000 | 22/06/2017 | 9:00:00 | LTL | 17CA01582 | 0,552 | 0,502 |
| 92204000 | 08/08/2017 | 10:05:00 | LTL | 17CA01357 | 1,46 | 1,311 |
| 92204000 | 26/09/2017 | 13:00:00 | LTL | 17CA02319 | 0,241 | 0,191 |
| 92204000 | 24/10/2017 | 13:00:00 | LTL | 17CA02525 | 0,251 | 0,1778 |
| 92204000 | 21/11/2017 | 14:00:00 | LTL | 17CA02619 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 30/01/2018 | 13:30:00 | LTL | 18CA00095 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 13/03/2018 | 13:20:00 | LTL | 18CA00950 | 0,0734 | 0,0234 |
| 92204000 | 24/04/2018 | 12:40:00 | LTL | 18CA00189 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 05/06/2018 | 13:10:00 | LTL | 18CA01145 | 0,0826 | -0,6404 |
| 92204000 | 19/07/2018 | 13:10:00 | LTL | 18CA00286 | 0,358 | 0,199 |
| 92204000 | 13/08/2018 | 12:35:00 | LTL | 18CA01269 | 0,722 | 0,672 |
| 92204000 | 25/09/2018 | 12:50:00 | LTL | 18CA00380 | 0,7 | 0,65 |
| 92204000 | 06/11/2018 | 12:05:00 | LTL | 18CA01018 | 0,199 | 0,1392 |
| 92204000 | 28/03/2019 | 12:45:00 | LTL | 19CA00452 | 0,0551 | 0,0051 |
| 92204000 | 25/04/2019 | 14:00:00 | LTL | 19CA00630 | 0,101 | 0,051 |
| 92204000 | 21/05/2019 | 13:00:00 | LTL | 19CA01014 | 0,05 | -0,009 |
| 92204000 | 04/07/2019 | 9:00:00 | LTL | 19CA01256 | 0,277 | 0,227 |
| 92204000 | 08/08/2019 | 14:00:00 | LTL | 19CA01449 | 0,721 | 0,566 |
| 92204000 | 12/09/2019 | 13:00:00 | LTL | 19CA01743 | 0,949 | 0,84 |
| 92204000 | 03/10/2019 | 9:40:00 | LTL | 19CA02157 | 1,37 | 0,926 |
| 92204000 | 11/11/2019 | 9:30:00 | LTL | 19CA02280 | 0,127 | 0,02 |
| 92204000 | 28/01/2020 | 14:30:00 | LTL | 20CA00014 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 10/03/2020 | 13:05:00 | LTL | 20CA00312 | 0,05 | 0 |
| 92204000 | 21/04/2020 | 14:10:00 | LTL | 20CA01550 | 0,0783 | 0,0283 |
| 92204000 | 02/06/2020 | 13:00:00 | LTL | 20CA01917 | 0,215 | 0,065 |
| 92204000 | 30/07/2020 | 13:00:00 | LTL | 20CA03865 | 0,312 | 0,262 |
| 92204000 | 08/09/2020 | 13:25:00 | LTL | 20CA05368 | 0,007 | 0 |
| 92204000 | 20/10/2020 | 14:00:00 | LTL | 20CA06664 | 0,0109 | -0,0004 |
| 92204000 | 17/11/2020 | 12:05:00 | LTL | 20CA07130 | 0,103 | -0,515 |
| 92204000 | 14/04/2021 | 14:10:00 | LTL | 21CA03094 | 0,112 | 0,105 |
| 92204000 | 06/05/2021 | 12:55:00 | LTL | 21CA03194 | 0,231 | 0,224 |
| 92204000 | 03/06/2021 | 13:15:00 | LTL | 21CA06298 | 0,007 | 0 |
| 92204000 | 01/07/2021 | 13:00:00 | LTL | 21CA06767 | 0,327 | 0,3052 |
| 92204000 | 03/08/2021 | 11:55:00 | LTL | 21CA07228 | 0,134 | 0,1305 |
| 92204000 | 31/08/2021 | 12:45:00 | LTL | 21CA08536 | 1,37 | 1,36229 |

| est | fecha | hora | laboratorio | n_analisis | $PO_4$ (mg/l) | Diferencia entre puntos (mg/l) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 92204000 | 05/10/2021 | 13:20:00 | LTL | 21CA10860 | 0,551 | 0,54341 |
| 92204000 | 09/11/2021 | 14:05:00 | LTL | 21CA12642 | 0,007 | 0 |
| 92204000 | 10/02/2022 | 12:30:00 | LTL | 22CA00601 | 0,0135 | 0,0065 |
| 92204000 | 10/03/2022 | 14:19:55 | LTL | 22CA01963 | 0,007 | -0,0239 |
| 92204000 | 03/05/2022 | 11:30:00 | LTL | 22CA04277 | 0,0786 | 0,0716 |
| 92204000 | 16/06/2022 | 12:48:12 | LTL | 22CA06512 | 0,355 | 0,348 |
| 92204000 | 21/07/2022 | 11:41:00 | LTL | 22CA06735 | 0,007 | -0,0045 |
| 92204000 | 08/09/2022 | 13:18:10 | LTL | 22CA08849 | 0,007 | 0 |
| 92204000 | 20/10/2022 | 13:10:00 | LTL | 22CA10936 | 0,0145 | 0,0075 |
| 92204000 | 08/11/2022 | 9:21:35 | LTL | 22CA12000 | 0,007 | -0,0036 |
| 92204000 | 20/02/2023 | 14:16:06 | LTL | 23CA01208 | 0,007 | 0 |
| 92204000 | 20/03/2023 | 13:15:00 | LTL | 23CA02187 | 0,0765 | 0,0324 |
| 92204000 | 22/05/2023 | 11:00:07 | LTL | 23CA04281 | 0,007 | 0 |
| 92204000 | 03/07/2023 | 12:18:10 | LTL | 23CA05338 | 0,174 | 0,1632 |
| 92204000 | 03/08/2023 | 12:12:09 | LTL | 23CA07306 | 0,19 | 0,058 |
| 92204000 | 31/08/2023 | 11:57:00 | LTL | 23CA08160 | 0,281 | 0,2002 |
| 92204000 | 23/10/2023 | 12:15:00 | LTL | 23CA10160 | 0,789 | 0,7033 |
| 92204000 | 20/11/2023 | 13:05:00 | LTL | 23CA11125 | 0,123 | 0,1008 |
| 92204000 | 15/01/2024 | 11:54:06 | LTL | 23CA12373 | 0,0789 | 0,07146 |
| 92204000 | 12/02/2024 | 12:10:02 | LTL | 24CA00710 | 0,0214 | 0,0144 |
| 92204000 | 15/04/2024 | 11:41:42 | LTL | 24CA02953 | 0,00826 | 0,00126 |
| 92204000 | 20/05/2024 | 12:41:46 | LTL | 24CA05438 | 0,216 | 0,095 |
| 92204000 | 20/06/2024 | 11:25:00 | LTL | 24CA06718 | 0,318 | 0,152 |
| 92204000 | 22/08/2024 | 13:00:00 | LTL | 24CA08549 | 0,0162 | 0,00708 |
| 92204000 | 14/10/2024 | 11:35:55 | LTL | 24CA11666 | 0,191 | 0,1512 |
| 92204000 | 18/11/2024 | 13:00:14 | LTL | 24CA12788 | 0,0835 | 0,0765 |

*Fosfato-datuak 92204000 kontrol-puntuan(Ultzama Ziaurritzen), HUAtik uretan beheiti.*

Urdin argiaz ilundurik daude serie historikoa ebaluatzeko hautaturiko laginak (iraila, urria eta azaroa).

Urdin ilunaz ilundurik daude tratamendua aplikatzeko aldian lorturiko laginak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

# 11-25/PES-00238. Galdera, Ultzama ibaian mindak isurtzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Ultzama ibaian mindak isurtzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00238 idatzizko galdera egin du, Ultzama ibaian mindak isurtzeari buruzkoa. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderei erantzunez:

Ingurumen Departamentuak zer neurri hartu du hori dela-eta?

Galderari erantzuteko, Ultzama ibaiaren kasu partikularra testuinguruan paratu behar da, oinarrizko eta funtsezko bi printzipio nabarmendurik:

• Ekonomia Zirkular eta Berrikuntzako Zerbitzuko Ingurumena Ikuskatzeko Atalak jarraipena egiten du Nafarroako etxalde nagusiek sorturiko minden gainean, simaurrak eta mindak Kudeatzeko Planen bitartez.

• Izan litezkeen eta kontrolatu nahiz ezabatu beharreko anomalia eta irregulartasunetatik haratago, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren politikak laboreen ongarritze organikoa lagundu eta ahalbidetu nahi du, horixe baita irtenbiderik jasangarriena ingurumenaren ikuspegitik.

Nolanahi ere, Ingurumen Departamentuak, aintzat harturik unean uneko salaketak eta kutsadura-maila handieneko egoerak, bi ildo hauek lantzen ditu:

• Etengabeko jarraipena egitea SAICA sarearen bitartez, eta berariazko azterlanak ere egitea oraingo egoera ezagutzeko.

• Landako zaintza eta jarraipena, SEPRONAren, Foruzaingoaren eta Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen bitartez, eta zehapenak izapidetu eta jartzea mindak kudeatzeko planak bete ezean, unean uneko isurketak eraginez gero.

Gainera, Ingurumen Departamentuak, Ekonomia Zirkular eta Berrikuntzako Zerbitzuko Ingurumen Ikuskapenen Atalaren bitartez, ikuskapen-bisitak egiten ditu instalazioetan, Nafarroako industria-jarduera ikuskatzeko programaren barruan. Programa urtero onesten da.

Taulan Nafarroako abeltzaintza-instalazioak ageri dira, zein bere kategorian; Ingurumen Departamentuak eskumena du ingurumen baimen integratu gisa (1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskina) eta ingurumen baimen bateratu gisa (17/2020 Foru Legearen 1. eranskina) jarduten duten instalazioen gainean, eta jarduera-lizentzia gisa (17/2020 Foru Legearen 3. eranskina) jarduten duten instalazioak, berriz, instalazioa dagoen Udalaren eskumenekoak dira.

| | Ingurumeneko baimen integratua | Ingurumen baimen bateratua | Jarduera sailkatuaren lizentzia |
|---|---|---|---|
| Nafarroa, guztira | 146 | 499 | 3.286 |
| Ultzama | 0 | 29 | 47 |

Adierazi behar dut, era berean, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 23.3 artikuluan adierazirikoaren ondoriozko lege-arrazoiak direla kausa (815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua —zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita— onestekoa), Ekonomia Zirkular eta Berrikuntzako Zerbitzuko Ikuskapen Atalaren lehentasuna da bisitatzea Ingurumen Baimen Integratuko araubidearen barruan jarduten duten instalazioak, Nafarroako industria-jarduera ikuskatzeko 2025eko programari jarraikiz, eta haietako bakar bat ere ez dago Ultzamako haranean.

Era berean, 2020. urteaz geroztik, azpiprograma bat dago ikuskatzeko programaren barruan minden aplikazioa kontrolatzeko, animalia kopuru handia duten zenbait instalaziotarako, eta haietako bakar bat ere ez dago Ultzaman.

Eskualdean instalazio anitzek jarduten dute jarduera-lizentziaren araubidearen barruan; alegia, udal-eskumenaren barruan.

Ultzama ibaian baliteke mindak egotea eta uraren kalitatea kontrolatzeko sarean amonio kantitate handiak antzematea kanoi eta abaniko erako sistemen bidez aplikatzen badituzte (debekatuta daude, eta hodi esekien sistema baino ez da baimentzen), eta euri handien ondorioz lursailean aplikatutako mindak garbitzen badituzte (eta ibaira bideratu).

Ildo horretatik, izan litekeen arazo nagusia mindak aplikatzea izanen da, eta ez instalazioen egoera, horregatik egokiagotzat jo dugu landa-lana egiten duten erakundeek (SEPRONA, Foruzaingoa, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea) gehienbat kontrolatzeko jarduerak egin ditzaten lursailean mindak aplikatzearen gainean, instalazioetara programatutako ikuskapen-bisiten gainetik.

Laburpen-taula batean zehaztu ditugu Ultzama ibaiaren arroan (Ultzama, Lantz, Anue, Olaibar, Odieta, Imotz, Atetz eta Ezkabarte) dauden instalazioak eta ekintzak.

## Bisita programatuak (EZKAZ). 2024-2025 (ekaina arte)

| Organo arduraduna | Kontzejua | Udala | Titularra | Espediente-zk. | Udalari igortzea | Errekerimendua | Zehatzailea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EZKAZ | URRITZOLA-GALAIN | ULTZAMA | GAUR ULZAMA SL | 0002-0103-2024-000070 | ** | 2024/11/11 | Ez |
| EZKAZ | URRITZOLA-GALAIN | ULTZAMA | ALDAPA SCL | 0002-0103-2024-000068 | ** | 2024/11/11 | Ez |
| EZKAZ | OSKOTZ | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL DE ARALAR | 0002-0204-2024-000061 | ** | 2024/05/21 | 2024/07/16 |

## Programatu gabeko bisitak: SEPRONA, Foruzaingoa, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea. 2024-2025 (ekaina arte)

| Organo arduraduna | Kontzejua | Udala | Titularra | Espediente-zk. | Udalari igortzea | Errekerimendua | Zehatzailea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SEPRONA | Beuntza | ATETZ | SC EGOZKUE ITURRALDE | 0002-0204-2025-000090 | Ez | 2025/06/13 | 2025/06/13 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Suarbe | ULTZAMA | SC IGOA GARRO ANA E IRIBARREN IGOA JON | 0002-0204-2024-000011 | Ez | | |
| SEPRONA | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000025 | Ez | | |
| SEPRONA | Arraitz-Orkin | ULTZAMA | SC ARIZTEGUI OYAREGUI JUANA MARIA Y HERNANDORENA ARIZTEGUI M | 0002-0204-2024-000026 | Ez | | 2024/02/23 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Olague | ANUE | SAT NUMERO 621NA PRESONDO | 0002-0204-2024-000032 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000052 | Bai: 2024/03/05 | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000053 | Ez | | 2024/05/23 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000059 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000060 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000062 | Ez | | |
| SEPRONA | Ziganda | ATETZ | IBERO BARAIBAR, JOSE MARÍA | 0002-0204-2024-000073 | Bai: 2024/04/24 | | |
| SEPRONA | Auza | ULTZAMA | AUZAKO KONTZEJUA | 0002-0204-2024-000086 | Bai: 2024/05/22 | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000100 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Gorrontz-Olano | ULTZAMA | SAT IRUMENDI NA593 | 0002-0204-2024-000110 | Ez | 2024/06/12 | 2024/06/12 |
| SEPRONA | Errazkin | LARRAUN | AZCONA AZNAR, MARÍA SAGRARIO | 0002-0204-2024-000137 | Bai: 2024/09/11 | | |

| Organo arduraduna | Kontzejua | Udala | Titularra | Espediente-zk. | Udalari igortzea | Errekerimendua | Zehatzailea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Beratsain | ATETZ | SC EGOZKUE ITURRALDE | 0002-0204-2024-000152 | Ez | 2024/09/18 | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000159 | Ez | 2024/10/16 | 2024/10/29 |
| SEPRONA | Beuntza | ATETZ | SC EGOZKUE ITURRALDE | 0002-0204-2024-000161 | Ez | 2024/10/09 | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000166 | Ez | 2024/10/29 | 2024/10/29 |
| SEPRONA | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000178 | Ez | 2025/02/04 | 2025/02/06 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Lantz | LANTZ | SAT NUMERO 609 SANTA CRUZ | 0002-0204-2024-000187 | Ez | 2024/11/28 | |
| EKH | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2024-000194 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Beuntza | ATETZ | SL IRAIN AGROPECUARIA | 0002-0204-2025-000008 | Ez | 2025/02/07 | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Beuntza | ATETZ | SL IRAIN AGROPECUARIA | 0002-0204-2025-000009 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Beuntza | ATETZ | SC EGOZKUE ITURRALDE | 0002-0204-2025-000010 | Ez | 2025/01/28 | 2025/02/10 |
| SEPRONA | Latasa | IMOTZ | IMOZKO UDALA | 0002-0204-2025-000015 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000017 | Ez | 2025/02/04 | 2025/02/06 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Iraizotz | ULTZAMA | SAT NUMERO 356 LENGUSUEK | 0002-0204-2025-000026 | Ez | | |
| Foruzaingoa | Eltzaburu | ULTZAMA | VILLANUEVA ALDAYA, OIER | 0002-0204-2025-000031 | Ez | 2025/03/10 | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000043 | Ez | 2025/03/12 | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000045 | Ez | 2025/03/13 | |
| Foruzaingoa | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000061 | Ez | 2025/04/25 | 2025/04/28 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Larraintzar | ULTZAMA | ALDAPA SDAD. COOP. LTDA | 0002-0204-2025-000062 | Ez | 2025/04/23 | 2025/04/25 |
| SEPRONA | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000063 | Ez | | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Alkotz | ULTZAMA | SC OSCOZ GOICOECHEA ISMAEL Y MANUEL | 0002-0204-2025-000067 | 2025/05/30 | 2025/05/22 | |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Latasa | IMOTZ | LATASAKO KONTZEJUA | 0002-0204-2025-000072 | Ez | | |
| Foruzaingoa | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000073 | Ez | 2025/05/14 | 2025/05/20 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Alkotz | ULTZAMA | MACAYA ZANDIO, JUAN IGNACIO | 0002-0204-2025-000078 | | 2025/05/22 | 2025/05/22 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000081 | | 2025/05/22 | 2025/05/22 |
| Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea | Oskotz | IMOTZ | COOPERATIVA AGROPECUARIA SAN MIGUEL | 0002-0204-2025-000082 | | | |

2024-2025eko laburpen-taula (ekaina arte)

| | IBI | IBB | Jarduera-lizentzia | Programatutako bisitak (EZBZ) | Kontrolak (SEPRONA, Foruzaingoa, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea) | **Guztira** | **Txostena Udalari igortzea** | **Hobetzeko errekerimendua** | **Zehapen-espedientea hasteko proposamena** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroa, guztira | 146 | 499 | 3.286 | 131 | 99 | 230 | 22 | 137 | 33 |
| Ultzama | 0 | 29 | 47 | 3 | 40 | 43 | 5 | 20 | 14 |
| Guztira | 146 | 528 | 3.333 | ** | ** | ** | ** | ** | ** |

2024. eta 2025. urteetan Ikuskapen Ataleko langileek ikuskapen eta kontrolerako 131 bisita egin dituzte Nafarroan minden aplikazioarekin lotuta (haietatik 3 eskualde honetan izan dira). Halaber, landa-lanaz arduratzen diren erakundeek (SEPRONA, Foruzaingoa, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea) 99 kontrol ere egin dituzte; 40 eskualdean.

Hortaz, landa-lana egiten duten erakundeek (SEPRONA, Foruzaingoa, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea) eginiko 99 kontrol-ekintzetatik 40 eskualdean izan dira —bisita guztien % 40—; ehunekoa nabarmen handiagoa da eskualdeko instalazioek Nafarroako guztien aldean dutena baino (% 1,4). Eremu honetako zaintza bereziki handia izan da.

Ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginiko 43 ekintzetatik, 5 kasutan Udalari igorri zaio, erakunde eskudun gisa, jarduera-lizentzia gisa jarduten baitzuten; 20 alditan hobetzeko errekerimenduak egin dira, eta 14tan zehapen-espedienteak hastea proposatu da.

Eta zer informazio ematen dute Ultzama ibaiko uren analisien emaitzek?

Nafarroako uren egoera aztertzea eta hari buruzko urteko memoriak argitaratzea sustatzen du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak. Duela urte batzuk zenbait kontrol-sare ezarri ziren, ingurumenaren alderdiak behatzen dituzten puntuez osatuak. Sare horiei dagokienez, lorturiko datuak barne harturiko memoriak egiten dira, sare bakoitzaren egoera laburbiltzeko. Memorien artean daude kalitate fisiko-kimikoa, kalitate biologikoa eta egoera ekologikoa kontrolatzeko sareei buruzkoak, bai eta kalitatearen sare automatikoari buruzkoa ere. Dokumentazio horretan guztian Nafarroako ibaiek azken urtean (2024) izaniko egoeraren gaineko informazioa lortzen da, bai eta era horretako azterlanak daudenetik egoera ekologikoak nahiz indize biotikoek izaniko bilakaeraren ikuspegi historikoa ere.

Ultzama ibaiaren egoerari dagokionez, esandako memorietan daude iazko (2024) emaitzak —aztergai EL AGUA EN NAVARRA webgunean—. Aurreko urteetako gainerako dokumentuek, berriz, ikuspegi historikoa ematen dute. Webgunean Nafarroako ibaien uraren kalitateari buruzko estazio automatikoen denbora errealeko datuak ere badaude ikusgai.

KALITATE FISIKO-KIMIKOA 2024

Ultzama ibaian laginak hartu dira Arraitz, Lozen, Lizaso, Ziaurritz eta Atarrabiako herrietan. Ibaiaren kalitate fisiko-kimikoa oso ona da 2024an, nahiz eta Atarrabian fosfato-kontzentrazioa nolabait handitu den. Kalitatearen kategoria horretan ezaugarri fisiko-kimikoak ezin hobeak dira ekosistemaren funtzionamendu ona ziurtatzeko, eta horri esker, egoera ekologiko arras ona lortzen ahal du (Uraren Esparru Zuzentarauaren helburua).

Ibaiak aitzina egin ahala, handitu egiten da eroankortasun nahiz gogortasuna, gatz disolbatuen eta mineralen kontzentrazio handiagoaren erakusgarri. Agorraldian alde hori are nabarmenagoa da.

Uraren tenperatura egonkorra da, baita pH-a ere, goiti-beheiti handirik gabe. Oxigeno disolbatuak balio moderatu eta erregularretan segitzen du ibilbide osoan, uraren oxigenazio egokia berretsirik.

Nitratoak balio apaletan daude ibilbide osoan. Fosfatoek eta amonioak hazkunde apalak dituzte zenbait gunetan (Ziaurritz eta Atarrabia).

2024KO INDIZE BIOTIKOAK

Ultzama ibaia Argaren adarrik handiena da Iruñetik goiti isurtzen direnetatik, eta bigarren garrantzitsuena hedadurari dagokionez. Mendi Heze Karetsukoa da. Belateko mendatearen hegoaldeko isurialdean sortzen da, eta Argara isurtzen da Atarrabian. Ibilbidearen zati gehienean I-H noranzkoari jarraitzen dio. Haren adar nagusiak Arkil eta Eltzarrain dira. Arroa ez dago arras populatua; herri anitz daude bertan, neurri txikikoak orokorrean. Abere-azienda handia dago.

Nafarroako Salmonidoen Arrantza Antolatzeko Plan Gidariarekin bat etorriz (157/1995 Foru Dekretua, uztailaren 3koa), ibaiaren goi-ibarretik Eltzarrain edo Mediano ibaiarekin, Ostitzera iritsi baino pixka bat lehenago, bat egin arteko ibai-zatia, Salmonidoen Goiko Eremukoa da. Gainerakoa Argan isuri arte, Salmonidoen Eremu Mistokoa.

Datu fisiko-kimikoak

Bi kanpainetan (udaberria eta agorraldia) bildutako datuak honako taula hauetan zehazten dira:

| Estación | pH | Tª (° C) | Ox. Dis. (mg l$^{-1}$) | Ox. Dis. (% sat.) | Cond. (µS cm$^{-1}$) | Turbidez (UNF) | Amonio (mg l$^{-1}$) | Fosfatos (mg l$^{-1}$) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PRIMAVERA | | | | | | | | |
| N-11 Arraitz | 8,05 | 14,0 | 9,23 | 97,6 | 114,9 | 4,95 | 0,01 | < N.D |
| N-12 Iraizotz | 7,98 | 14,9 | 8,76 | 93,5 | 232,5 | 11,90 | < N.D | 0,02 |
| N-13 Lizaso | 7,97 | 15,7 | 8,60 | 93,7 | 244,0 | 10,70 | < N.D | < N.D |
| N-14 Ciaurriz | 8,06 | 15,6 | 8,79 | 96,7 | 373,7 | 10,30 | 0,19 | 0,65 |
| N-15 Sorauren | 8,25 | 16,0 | 8,77 | 95,8 | 366,9 | 12,50 | < N.D | 0,20 |
| N-16 Villava | 8,35 | 14,1 | 9,32 | 98,2 | 621,1 | 5,91 | 0,01 | 0,20 |
| ESTIAJE | | | | | | | | |
| N-11 Arraitz | 7,76 | 14,5 | 8,96 | 96,6 | 121,1 | 4,16 | < N.D | 0,04 |
| N-12 Iraizotz | 7,85 | 15,8 | 8,38 | 92,1 | 262,3 | 9,97 | 0,97 | 0,06 |
| N-13 Lizaso | 7,81 | 16,3 | 8,24 | 91,4 | 267,3 | 5,98 | 0,18 | 0,10 |
| N-14 Ciaurriz | 7,84 | 16,9 | 8,22 | 91,9 | 380,1 | 12,50 | 0,69 | 0,08 |
| N-15 Sorauren | 7,89 | 17,8 | 7,97 | 90,5 | 392,5 | 13,60 | 0,05 | 0,11 |
| N-16 Villava | 8,39 | 20,2 | 8,84 | 104,3 | 403,7 | 10,50 | < N.D | 0,25 |

Ultzama ibaiaren kalitate-elementu fisiko-kimikoak (*in situ*). 2024. urtea. (DM: detekzio-maila)

Alde batera utzita zatiren batean kutsadura organikoa momentu puntualetan egotea, esan behar da egoera ona dela ibai osoan, hala udaberrian nola agorraldian. Ziaurritzen, udaberriko kanpainan, fosfatoen maila handi samarrak detektatu dira. Agorraldian, ordea, fosfatoen kontzentrazio txikiak daude. Amonioaren balio handia dago, halere, Iraizotzen, eta txikixeagoa, baina kutsadura-zantzuen adierazgarri, Ziaurritzen.

Indize biotikoen emaitzak

| Estaciones | ÍNDICE IBMWP | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | PRIMAVERA | | | | | ESTIAJE | | | |
| | Tipo | Valor | RCE | Nº Familias | Clase Estado | Valor | RCE | Nº Familias | Clase Estado |
| N11-Arraitz | R.T26 | 165 | 0,81 | 29 | II | 177 | 0,87 | 30 | II |
| N12-Iraizotz | R.T26 | 187 | 0,92 | 34 | I | 142 | 0,70 | 27 | II |
| N13-Lizaso | R.T26 | 143 | 0,70 | 24 | II | 140 | 0,69 | 28 | II |
| N14-Ciaurriz | R.T26 | 151 | 0,74 | 27 | II | 159 | 0,78 | 31 | II |
| N15-Sorauren | R.T26 | 131 | 0,64 | 24 | II | 128 | 0,63 | 25 | II |
| N16-Villava | R.T26 | 109 | 0,53 | 23 | II | 161 | 0,79 | 31 | II |

Ultzama ibaiaren egoera biologikoa. Makroornogabeen kalitate-elementua. 2024. urtea

Ultzama ibaiak egoera egokia izan du 2024. urtean (Ona). Estazio guztietan lortu egin dira Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak.

Era berean, diatomeo bentonikoen laginak jaso dira Lizason eta Atarrabian, makroornogabeen ez beste adierazle biologiko baten bitartez uraren kalitatea kalifikatzeko:

| Estaciones | ÍNDICE IPS | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | PRIMAVERA | | | | | ESTIAJE | | | |
| | Tipo | Valor | RCE | Nº Taxones | Clase Estado | Valor | RCE | Nº Taxones | Clase Estado |
| N-13 Lizaso | R.T26 | 14,6 | 0,78 | 46 | II | 15,6 | 0,84 | 28 | II |
| N-16 Villava | R.T26 | 15,0 | 0,81 | 44 | II | 12,1 | 0,65 | 47 | III |

Ultzama ibaiaren egoera biologikoa. Diatomeoen kalitate-elementua. 2024. urtea

IPS indizearen arabera, 2024an Lizasoko zatiak gutxienez egoera ona edo II. klasea lortzeko helburuak bete ditu. Atarrabian, berriz, udaberrian egoera biologikoa ona da, baina moderatua, agorraldian.

Egoera trofikoa

Alga planktonikoen laginak ere jasotzen dira Ziaurritz, Sorauren eta Atarrabian.

| Estación | PRIMAVERA | | | ESTIAJE | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Clorofila (µg l$^{-1}$) | Índice Margalef | Situación trófica | Clorofila (µg l$^{-1}$) | Índice Margalef | Situación trófica |
| N-14 Ciaurriz | 1,07 | 2,17 | Oligotrofia | 2,14 | 2,24 | Oligotrofia |
| N-15 Sorauren | 1,34 | 2,17 | Oligotrofia | 3,74 | 1,80 | Mesotrofia |
| N-16 Villava | 3,47 | 2,68 | Mesotrofia | 4,54 | 2,18 | Mesotrofia |

Produkzio primarioa Ultzama ibaian. Klorofila PLANKTONEAN. 2024. urtea

Analizatutako zatietako uraren klorofilak kontzentrazio txikiak ditu estazio guztietan, hala udaberrian nola agorraldian. Horrek produktibitate txikia esan nahi du. Alga planktonikoak heltze-fasean daude.

EGOERA EKOLOGIKOA 2024

Ultzama ibaiak egoera ekologiko ona du ia puntu guztietan. Lozen (egoera-sailkapen arrunt ona) eta Atarrabia (egoera moderatua adierazle biologikoengatik) gainerakoetatik nabarmentzen dira.

DENBORAZKO EBOLUZIOA

Azken urteotako laginketek kalitatearen gaineko oszilazioa, ertainaren eta onaren artekoa, erakutsi dute. 2018-2024 aldian, egoera egokia da bi kanpainetan (udaberria eta agorraldia).




Uraren kalitate ekologikoaren egoera

2024ko urtarrilean Ultzama ibaiko uren kalitatearen azterketa (2023. urtea) bukatu zen. Lan hartan handitu egin zen behaketa fisiko-kimiko eta biologikoko estazioen kopurua, eta, Latasan ezarritako SAICA estazioak (azaleko uren kalitatearen sare automatikoa) emaniko informazioarekin batera, datu interesgarriak eman zituen uraren kalitate-egoerari buruz eta estazio hartan detektaturiko amonio- eta uhertasun-gehikuntzari buruz.

Nafarroako Gobernuaren sareen erregistro historikoak eta txostenaren datuak aztertuta, hauxe ondorioztatzen dugu:

• Ultzama ibaiaren egoera ekologikoa, 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako metodologiaren arabera, oro har, ona da. Nafarroako Gobernuaren 2000-2022 aldiko kontrol-sareen datuak aztertuta, hobetzeko joera duela ikusten da. Egoera ekologikoaren osagaietatik, biologikoak lortzen du emaitzarik okerrenak historikoki, eta mugatzaileagoa da, horrenbestez, osagai fisiko-kimikoak baino. Egoera fisiko-kimikoaren barruan, Ziaurrizko puntuko fosfatoaren parametroak ditu urteko batez besteko kontzentraziorik handienak. Horrek erakusten du zer-nolako eragina duen Latasako HUAren isurketak Ultzama ibaiaren kalitatean, batez ere emari apalen duen hilabeteetan. Nafarroako Gobernuaren kontrol-sareek ongi karakterizatzen dute eragin hori, hala denboran nola espazioan.

• Gainera, arroan Ultzama ibaiaren unean uneko kutsadura-gertakariak izaten dira, kontrolerako eskuzko sareek detektatu gabeak, eta uraren kalitatearen denbora errealeko monitorizazioa behar da, Nafarroako Gobernuaren SAICA sareak emanikoa bezalakoa, hura karakterizatzeko. Ultzama ibaiari dagokionez, SAICA estazio bat dago Latasan, eta Latasako HUAren isurketaren aitzinetik neurtzen du ibaiaren kalitatea; horregatik, datuak ematen ditu, isurialde-arroan kontrol-punturaino zer gertatzen den jakiteko. Aurreikustekoa da antzeko kutsadura-gertakariak izatea ezaugarri horietako estazio batek monitorizatu gabeko arroaren gainerakoan.

• Unean-unean antzematen da ibaiaren kutsadura handitzen dela amonio-kontzentrazioengatik, eta handitu ere egiten da urak duen gai organikoa. Egoera eta arro-ingurunearen kondizioak aztertuta, bi mota hauek bereizten dira:

– Prezipitazioen ondorioz arroko jariatzea-emaria handitzearekin lotutako gertakariak. SAICA kontrol-puntuan amonio-kontzentrazioa handitzea da, eta harekin batera ibaiko emaria ere handitzea. Oro har, emaria handitzeak diluzioa laguntzen du, eta ondorioz, gehieneko kontzentrazioak ez dira hain balio handietara iristen. SAICA estazioan erregistraturiko erantzuna bateragarria da arroan gai organikoz beteriko lurzoruak garbitzeko gertakariekin. Prezipitazioek (emaria handitzea) ez dute beti arroan fenomeno hori sortzen, lurzoruan biltegiratutako gai organikoaren araberakoa baita. Ondoz ondoko zenbait prezipitazio-gertakari izaten direnean, lehenak eragiten du ibaian amonioa gehien handitzea. Ibaiaren kargaren mailan, gertakari horiek masa esportatu handiak eragiten dituzte, kontzentrazio handiak eta emariak gehitzea konbinatzen baitituzte. Zenbait egun irauten dute, eta malda handiagoko eta txikiagoko kurbak daude.

– Arroko aldagai hidrometeorologikoen aldaketekin lotu gabeko gertakariak. Amonio-kontzentrazioa bat-batean handitzea da, ibaiaren emarian aldaketarik egon gabe, eta arroan aitzinetik prezipitaziorik egon gabe. Gertakari horiek Ultzama ibaiaren emari apalak detektatzen dituzte, eta, ibaiaren diluzio-ahalmena handitzen ez denez, baliteke egotea amonioaren gehieneko kontzentrazio arrunt handiak. Gertakarien karga-mailak aztertuta, aitzinekoek baino karga txikiagoa sortzen dute; izan ere, kontzentrazioa handia izanagatik ere, emariak balio egonkorrak eta normalean txikiak ditu oraindik. Gertakariak anitzetan errepikatzen dira, eta zenbait ordu irauten dute; ondorioz, kontzentrazioak arras azkar handitzen eta apaltzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

# 11-25/PES-00239. Galdera, turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesuari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-25/PES-00239 idatzizko galdera egin du, turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesuaren egoera zein den eta prozesuan zer aurrerapen eta mugarri lortu diren jakite aldera. Bada, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua eskuduna da plangintzaren, antolamenduaren, sustapenaren eta turismo informazioaren arloan, eta bulegoen sare propioa du hartarako; behar diren zereginak egiten dituzte bulegoek.

Turismo Zuzendaritza Nagusia Turismo Bulegoaren eredu berria ezartzeko lanean ari da, turismo-merkatuaren errealitate berrira egokitzeko. Bisitariaren informaziorako eredu tradizionala eboluzionatzea da apustua, turismoari eta tokiko ekonomiari laguntzeko zerbitzuen sistema osoa izan dadin, lurraldearen garapen integralean barne harturik, era berean, herritarrak, tokiko enpresak, administrazioak eta ikastetxeak nahiz prestakuntza-zentroak. Halaber, funtsezko piezak dira, eta lagundu egiten diete Espazio Turistikoaren Kudeaketa Unitateei (ETKU), Nafarroako turismo agenteak lurraldean koordinatzeko era berria.

Eredua finkatutakoan, esparru estrategikoak turismo bulego inklusiboak eta digitalizatuak lortu nahi ditu, dauden lurraldearen DNA helarazten badakitenak, Nafarroa turismo-markaren aterkipean eta errefortzuarekin. Bulegoek bertako jarduerak eta produktuak bultzatzea lortu behar dute, baita lanbide-sektorearen lehiakortasuna hobetzea ere. Xede horretan, berariazko zenbait partida jaso ziren «Landa Nafarroa» HKJ eta «5 Donejakue bide, mila bide Nafarroan» HKJ helmugen arteko kohesio-jarduketetan. 2026ko apirilean aurreikusten da haiek exekutatzea.

Bihurtze-prozesuak zenbait neurri ezartzea hartzen du barne, eta haietatik hauek nabarmentzen dira:

– Turismo eta herritarrentzako arreta-bulego irisgarri eta inklusiboak sortzeko eta kudeatzeko gida egitea. (% 100 exekutaturik)

– Tokiko erakundeei turismo bulegoak eta guneak eraldatzeko dirulaguntzaren deialdia (% 100).

– Aldaketa adierazgarriak turismo bulegoak kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko agirietan (2024an adjudikaturik), Espazio Turistikoaren Kudeaketa Unitateetarako kudeaketa- eta laguntza-behar berriekin bat etorrarazteko. (% 100)

– Langileen prestakuntzarako urteko planak, publiko eta zerbitzu berriei egokituak. (% 100)

– Bertizko landa turismoko zentroa (Baztan-Bidasoa LANEren egoitza) egokitzea, bizikletazko turismora bereziki egokituriko turismo aktiboko zentro gisa. Obrak bukatu dira; altzariak erostea lizitatu da (% 80).

– Prozesuak digitalizatzea bisitariaren datuak eta bulegoen sareko lana biltzeko. (% 100).

– Arreta bitarteko digitalez (totema, sarbide iraunkorreko pantailak, tabletak eta abar) ematea paper-murrizketa laguntzeko, eta eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan arreta ziurtatzeko. Gehitu beharreko osagaiak zehaztu dira, eta lizitazio-prozesua prestatu da. (% 40).

– Bulegoen tematizazio fisikoa, oraingo azpiegitura eta estetika hobetuz, eta falta diren irisgarritasun-neurriak hartuz. Bulego bakoitzaren diseinua landu da, eta hautatu egin dira gehitu beharreko altzariak eta identifikatzeko elementuak. Lizitazio-prozesua prestatzen. (% 50)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

---

## 11-25/PES-00240. Galdera, Hilarión Eslava ikastetxea 0tik 3 urtera bitarteko ikasleen beharrizanei aurre egiteko egokitzera bideratutako neurriei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Hilarión Eslava ikastetxea 0tik 3 urtera bitarteko ikasleen beharrizanei aurre egiteko egokitzera bideratutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioak egindako 11-25-PES-00240 idatzizko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten dut Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik:

Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen du, eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta zikloaren hezkuntza-edukiak ezartzen ditu.

Nafarroako Gobernuak 2023ko abenduaren 27an hartutako erabakiaren bitartez, Egunsenti haur-eskola sortu zen, Hezkuntza Departamenduko zerbitzuek beharrezko egiaztapenak egin eta aldeko txostena eman eta gero, bai instalazioen egokitasunaren gainean (martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan eskatutako espazioekin bat etortzea), bai altzarien eta ekipamenduaren egokitasunaren gainean, bai beharren azterketaren eta aurreikusitako eskaintzaren planifikazioaren arteko bat etortzearen gainean, bai plantillen eta profesionalen titulazioaren gainean.

Haur-eskola sortzeko, Hezkuntza Departamentuak instalazioak egokitzeko beharrezko inbertsioa egin zuen, tartean haur hezkuntzako lehen ziklora bideratutako patioaren espazioa eta lehen zikloko jangela izateko erabil zitezkeen espazioak.

Aldiz, behin espazioak zentro bakoitzean aurreikusitako hezkuntza eskaintza hartzeko egokitu ostean, Hezkuntza Departamentuak ez du eskumenik bere jabetzakoak ez diren higiezinetan inbertsio zuzenak egiteko; egin dezakeena, helburu horrekin dirulaguntza deialdiak gaitzea da, eta, tokiko erakundeek, higiezinen jabe gisa (kasu honetan bezala), azpiegiturak eta instalazioak mantentzeko eta hobetzeko deialdi horietan parte har dezakete. Izatez, 2025ean, bi dirulaguntza deialdi argitaratu dira, bat haur hezkuntzako bigarren zikloko eta lehen hezkuntzako ikastetxeak egokitzeko, eta bestea haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeentzat.

Horrenbestez, higiezinaren titularra den Burlatako Udala da bitarteko propioekin egokitzapen lanak egiteko eskumena duen erakundea; jakina, hala badagokio, Nafarroako Gobernuak egindako dirulaguntza deialdien onuradun izateko aukera izanen du.

Azkenik, nabarmendu ikastetxeekin lotutako zenbait erabaki, adibidez komunetan ur beroa ez izatea, segurtasun-neurri gisa hartzen direla, helburu hartuta adingabeek ur beroa behar bezala ez erabiltzeak eragindako arriskuak saihestea.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

# 11-25/PES-00241. Galdera, Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara etortzeko eskola-garraioan gertatutako gorabeherei emandako erantzunari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara etortzeko eskola-garraioan gertatutako gorabeherei emandako erantzunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako 11-25-PES-00241 idatzizko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten dut Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik:

Galdera: Zein da Hezkuntza Departamentua ematen ari den erantzuna Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara eskola-garraioa erabiltzean gertatutako gorabeherei dagokienez, aintzat hartuta hori izan dela departamentua eta bertako ordezkariak harremanetan jartzeko arrazoia?

Hezkuntza Departamentuak zenbait bilera izan ditu Basaburuko Udaleko ordezkariekin 2024/2025 ikasturtean zehar, eta, horietan, zenbait proposamen jaso ditu ikasleen eskola-garraioa hobetzeko.

Zehazki, irailean jasotako komunikazio batean, Hezkuntza Departamentuari eskatu zitzaion udalerriko lanbide heziketako eta batxilergoko ikasleen eskola-garraioko zerbitzua hobetzeko neurriak hartzea.

Aipatu proposamena egun batzuk geroago erantzun genuen, zehaztuz Hezkuntza Departamentuak ibilbide espezifiko eta esklusibo bat diseinatu eta aplikatu duela Basaburuko ikasleentzat. Hori bai, salbuespenezko neurri bat aplikatzeak ezin du ekarri salbuespenezko beste neurri gehigarri bat ere aplikatzea, eta, Basaburuko Udalak proposatu bezala, Hezkuntza Departamentua taxi-ibilbideen kargu ere egitea. Gure iritzian, aipatu ibilbideen finantzaketa Basaburuko Udalari dagokio, aurreko ikasturteetan gertatu bezala.

Eskola-garraioko ibilbideen esleipenetan emandako egoera zailak (Basaburutik/Ultzamatik Burlatako/Atarrabiako ikastetxeetara joateko ibilbideen esleipena hutsik geratu zen 2024/2025 ikasturteko bi lizitazioetan), ezinezko bilakatu zuen Basaburuko ikasleentzat ibilbide espezifikoa martxan jartzea, garraio-kontratua nahitaezko luzapen espediente baten bidez kudeatu behar izan baita, eta horrek ezinezko bilakatu baitu jatorrizko kontratuak aldatzea.

Aldiz, 2025/2026 ikasturteko lizitazioan, izapidetzeko azken fasean dagoena uneotan, bi ibilbide independente esleituko dira, bat Basaburuko ikasleentzat eta bestea Ultzamakoentzat. Horrenbestez, Basaburuko ikasle guztiek euren herrietatik Burlatako Askatasuna Bigarren Hezkuntzako Institutura eskola-garraio zerbitzu zuzena izanen dute, Ultzamatik igaro beharrik gabe.

Zalantzarik gabe, ikasle bakoitza bere herrian bertan jasoz Basaburua guztia hartzen duen zerbitzu batek, ibilbidea luzea izatea dakar ezinbestean, eta, beraz, bidaia ere luzea izatea ikasleentzat. Aldiz, ibilbidea horrela planteatu baldin bada, ikasle bakar bat ere garraio eskubide gabe ez uzteko egin da; are gehiago, aintzat hartuta ez dugula udalaren erantzunik jaso galdetu diogunean autobusez egin beharreko ibilbidea laburtzeko taxietan eginen liratekeen balizko bidaien gastua bere gain hartzeko prest ote dagoen.

Bestalde, nabarmendu uneotan garraio eskubidea duten ia hamar ikasle batxilergoko bigarren maila edo gradu ertaineko heziketa-zikloren bat egiten ari direla, eta, horrenbestez, seguruenik hurrengo ikasturtean ez dutela zerbitzuaren beharra izanen. Badira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila egiten ari diren beste lau ikasle ere, agian hurrengo ikasturtean batxilergoko edo gradu ertaineko heziketa-zikloren bateko lehen maila eginen dutenak eta garraio zerbitzua beharko dutenak. Aintzat hartuta zenbait herritan garraio eskubidea duten ikasleak oso gutxi direla, posible da aldaketa horiek 2025/2026 ikasturteko ibilbideetan moldaketa garrantzitsuak eragitea.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

# 11-25/PES-00242. Galdera, Sumando TV eta WEB SAri (Navarra TV) 2015etik 2025era bitarte emandako diru publikoari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak Sumando TV eta WEB SAri (Navarra TV) 2015etik 2025era bitarte emandako diru publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Esparza Abaurrea jaunak 11-25/PES-00242 idatzizko galdera egin zuen, jakiteko zenbat diru publiko eman zaien edozein instrumenturen bitartez 2015etik 2025era bitartean Sumando TVri eta Web SAri (Navarra TV), bai Nafarroako Gobernuak, bai Nafarroako enpresa eta fundazio publikoek. Bada, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Ez dago jasota inolako kontraturik, hitzarmenik edo bestelako harreman ekonomikorik Miguel Indurain Fundazioarekin, eta ez da aipatu erakundearekin lotutako ez inolako fakturarik jaso ez egin.

Bestalde, Baluarte Fundazioari dagokionez, jarraian atxikitako taulan daude jasota faktura guztiak, kontzeptu, urte eta erakunde edo departamentuaren arabera banakatuta, eskuragarri dugun dokumentazioan oinarrituta.

| Faktura eta kontzeptua | Faktura guztira | Urtea |
|---|---|---|
| 2022/0677 faktura-Topaketen spot kanpaina-Sumando TV | 1.730,30 | 2022 |
| 2023/0013 faktura-22-23 denboraldiko Baluarte Fundazioaren agenda-Sumando TV | 14.520,00 | 2022 |
| 2023/0147 faktura-Publizitate kanpaina-Sumando TV | 4.497,57 | 2023 |
| 2023/0496 faktura- Apirileko eta maiatzeko agenda-Sumando TV | 2.420,00 | 2023 |
| 2023/0616 faktura-Baluarte Fundazioaren eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren publizitatea-Navarra TV | 363,00 | 2023 |
| 2023/0619 faktura-Agenda “El camerino” saioan-Sumando TV | 2.420,00 | 2023 |
| 2023/0941 faktura-Hartze spotak-Sumando TV | 4.497,57 | 2023 |
| 2024/0445 faktura-Ekitaldi publikoen estaldura-Sumando TV | 968,00 | 2024 |
| 2024/0472 faktura-Navarra TV | 2.420,00 | 2024 |
| 2024/0575 faktura-Apirileko eta maiatzeko iragarkiak-Sumando TV | 2.420,00 | 2024 |
| 2024/1116 faktura-Topaketen edukia-Sumando TV | 1.815,00 | 2024 |
| 2025/0128 faktura-Iragarkiak-Sumando TV | 605,00 | 2025 |
| 2025/0604 faktura-Telebistako 25-26 denboraldia-Navarra TV | 2.420,00 | 2025 |

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 2an.

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## Ekonomiako eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Esparza Abaurrea jaunak 11-25/PES-00242 idatzizko galdera egin zuen (2025eko ekainaren 10eko 202504749 zenbakia du Nafarroako Parlamentuan), jakiteko zenbat diru publiko eman zaien 2015etik 2025era bitartean Sumando TVri eta Web SAri (Navarra TV). Bada, Nafarroako Gobernuko Ekonomiako eta Ogasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut: Jarraian, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren zuzendari nagusiak 2025eko ekainaren 20an egindako txostenean bidalitako informazioa helarazten da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **NASERTIC** | Dibulgaziozko merkataritzako bideoa sigAGROasesor proiektuarentzat - Intia | 2015 | 2.783,00 € |
| **NASERTIC** | “Ikasi publikoan hitz egiten” komunikazio ikastaroa | 2024 | 4.235,00 € |
| **NASERTIC** | “El foco” programa berezia prime timean (50”)+ 2 berremanaldi | 2024 | 3.025,00 € |
| **NASERTIC** | Argazkiak eta bideoak. Bideo eskaria - Nafarroako Datuaren Bulegoaren laguntza teknikoko enkargua | 2024 | 1.210,00 € |
| **NASERTIC** | Argazkiak eta bideoak. Bideo eskaria - Nafarroako Datuaren Bulegoaren laguntza teknikoko enkargua | 2025 | 1.210,00 € |
| **NASERTIC** | “Kafea datuekin” bideoa - Nafarroako Datuaren Bulegoaren laguntza teknikoko enkargua | 2025 | 1.210,00 € |
| **CEIN** | Programa berezia | 2022 | 12.100,00 € |
| **CEIN** | Programa berezia | 2023 | 4.598,00 € |
| **CEIN** | Programa berezia | 2023 | 6.050,00 € |
| **CEIN** | Programa berezia | 2024 | 9.075,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen publizitatea | 2015 | 4.549,60 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen publizitatea | 2018 | 4.840,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen publizitatea | 2019 | 4.840,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen emanaldia COVID-garaian | 2020 | 9.680,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen emanaldia COVID-garaian | 2021 | 31.944,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen publizitatea | 2021 | 11.616,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen emanaldia | 2022 | 4.356,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen publizitatea | 2022 | 3.872,00 € |
| **NICDO** | Ikuskizunen emanaldia | 2023 | 6.776,00 € |
| **NASUVINSA** | SPOT kanpaina | 2017 | 2.500,00 € |
| **NASUVINSA** | Nasuvinsa mikroespazioak (2018) | 2018 | 3.960,00 € |
| **NASUVINSA** | KLINA kanpaina (mikroespazioak + SPOT kanpaina) | 2018 | 2.880,00 € |
| **NASUVINSA** | KLINA kanpaina (2018ko azaroa) | 2019 | 1.560,00 € |
| **NASUVINSA** | Klima aldaketari buruzko Nasuvinsa kanpaina | 2019 | 3.270,00 € |
| **NASUVINSA** | Klima aldaketari buruzko Nasuvinsa kanpaina | 2019 | 3.270,00 € |
| **NASUVINSA** | Klima aldaketari buruzko Nasuvinsa kanpaina | 2019 | 3.270,00 € |
| **NASUVINSA** | Nasuvinsa mikroespazioak (2020) | 2020 | 3.300,00 € |
| **NASUVINSA** | Nasuvinsa mikroespazioak La Muga magazinean | 2021 | 3.300,00 € |
| **NASUVINSA** | SPOT kanpaina (Nasuvinsa- Errefuxiatuentzat etxebizitzak) | 2022 | 1.500,00 € |
| **NASUVINSA** | Nasuvinsa mikroespazioak La Muga magazinean | 2022 | 4.000,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2016 | 3.025,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2016 | 2.420,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2017 | 2.420,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2018 | 3.630,00 € |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2018 | 2.420,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2018 | 4.840,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2019 | 1.815,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2019 | 605,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2019 | 2.420,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2019 | 2.420,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2019 | 2.746,70 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 786,50 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 3.630,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 3.630,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 3.630,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 3.630,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 3.630,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 7.502,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2020 | 10.527,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2021 | 3.630,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2021 | 2.420,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2021 | 1.210,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2022 | 6.074,20 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2022 | 4.235,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2022 | 4.235,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2022 | 12.100,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2023 | 7.260,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2024 | 4.840,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2024 | 6.050,00 € |
| **INTIA SA** | Reyno Gourmet-en publizitate/ekitaldien zerbitzu-kontratua | 2025 | 6.655,00 € |

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez eta bidalitako informazioa konfidentziala dela adieraziz.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

### Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Esparza Abaurrea jaunak PES-00216 galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Zehazki, honako informazio hau eskatu zuen:

Zenbat diru publiko eman zaio Sumando TV eta Web SAri (Navarra TV) edozein tresnaren bidez (hitzarmenak, dirulaguntzak, kontratuak, babesak, publizitate instituzionala, programa berezien grabazioa, etab.) 2015etik 2025era, bai Nafarroako Gobernuaren aldetik, bai Nafarroako enpresa eta fundazio publikoen aldetik?

Informazioa kontzeptuen eta urteen arabera banakatuta emateko eskatzen da, baita eman duen entitatearen edo departamentuaren arabera ere.

Zure kontsultarekin lotuta, eskatutako informazioa helarazten da, SAPen zehaztutako dataren gaineko bilaketa egin ostean lortutako datuak laburbilduta (IFK: A31743495).

| Soc. | Ej. | Importe en ML | Texto |
|---|---|---|---|
| CFNA | 2015 | -29.040,00 | *NAVARRA TELEVISIÓN-PUBLICIDAD COMERCIO MINORISTA- |
| CFNA | 2014 | -384.110,58 | *A31743495: Canal 6 Navarra Editora Independiente |
| CFNA | 2015 | -1.593,57 | *NAVARRA TELEVISIÓN-PROGRAMA FITUR-COMUNICACIÓN |
| CFNA | 2015 | -375.000,00 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS |
| CFNA | 2015 | -36.300,00 | *EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS DE NAVARRA SA, RE |
| CFNA | 2015 | -375.000,00 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS |
| CFNA | 2015 | -375.000,00 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS |
| CFNA | 2015 | -4.840,00 | *EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS DE NAVARRA SA (NA |
| CFNA | 2015 | -375.000,00 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS |
| CFNA | 2016 | -175.000,00 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS |
| CFNA | 2016 | -625.000,00 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS |
| CFNA | 2017 | -170.000,00 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS DE NA |
| CFNA | 2017 | -173.826,50 | *A31743495: EDITORA INDEPENDIENTE DE MEDIOS DE NA |
| CFNA | 2017 | -7.260,00 | *FACTURA CORRESPONDIENTE A REALIZACIÓN DE CONTENID |
| CFNA | 2017 | -7.260,00 | *NAVARRA TV-GRABACIÓN PRODUCCIÓN REPORTAJES TURISM |
| CFNA | 2018 | -4.063,26 | *CAMPAÑA DE PUBLICIDAD NAVARRA TV - JULIO 2017 (BI |
| CFNA | 2018 | -1.815,00 | *LA CAIXA ES3221003692832200039927 |
| CFNA | 2018 | -231.000,00 | *A31743495 |
| CFNA | 2018 | -1.089,00 | *LA CAIXA ES3221003692832200039927 |
| CFNA | 2018 | -463.697,36 | *A31743495 |
| CFNA | 2019 | -189.308,50 | *A31743495 |
| CFNA | 2019 | -15.730,00 | *PUBLICIDAD ASOCIACIÓN RESTAURANTES DEL REYNO Y TU |
| CFNA | 2019 | -384.353,61 | *A31743495 |
| CFNA | 2019 | -7.260,00 | *LA CAIXA ES3221003692832200039927 |
| CFNA | 2020 | -5.844,30 | *RF 1268299- SUMANDO TV Y WEB- CAMPAÑA COVID-19 |
| CFNA | 2020 | -18.125,80 | *4-7 PROGRAMAS EDUCACIÓN GOBIERNO DE NAVARRA COVID |
| CFNA | 2020 | -218.051,93 | *A31743495 |
| CFNA | 2020 | -3.025,00 | *LA CAIXA ES3221003692832200039927 |
| CFNA | 2020 | -3.025,00 | *LA CAIXA ES3221003692832200039927 |
| CFNA | 2020 | -442.711,48 | *A31743495 |
| CFNA | 2020 | -7.260,00 | *SUMANDO TV Y WEB RF 1390786 PATROCINIO V PREMIOS |
| CFNA | 2021 | -10.149,48 | *CAMPAÑA TURISMO INTERIOR GOBIERNO DE NAVARRA |
| CFNA | 2021 | -7.260,00 | *SUMANDO TV Y WEB -RF 1583620- PATROCINIO VI PREMI |
| CFNA | 2021 | -1.255.633,14 | *A31743495 |
| CFNA | 2021 | -18.150,00 | *ACCIÓN PUBLICITARIA EN NAVARRA TV ULTREIA CAMINO |
| CFNA | 2021 | -10.890,00 | *PRODUCCIÓN CONTENIDOS DELEGACIÓN BRUSELAS EUROPA |
| CFNA | 2021 | -18.150,00 | *PROGRAMA DOCUMENTAL DIVULGACIÓN DEL PATRIMONIO NA |
| CFNA | 2022 | -325.000,00 | *A31743495 |
| CFNA | 2022 | -650.000,00 | *A31743495 |
| CFNA | 2022 | -325.000,00 | *A31743495 |
| CFNA | 2022 | -18.150,00 | *PATROCINIO GASTO SUMMIT 25 Y 27 OCTUBRE 2022 |
| CFNA | 2022 | -4.840,00 | *SUMANDO TV Y WEB-RF 1803229-VIDEO INSTITUCIONAL D |
| CFNA | 2023 | -650.000,00 | *&Concesión directa de una subvención a Sumando TV |
| CFNA | 2023 | -750.000,00 | *&Concesión directa de una subvención a Sumando TV |
| CFNA | 2023 | -7.910,98 | *SUMANDO TV Y WEB-RF 2019170-PATROCINIO VIII PREMI |
| CFNA | 2024 | -800.000,00 | *&Concesión directa de una subvención a Sumando TV |
| CFNA | 2024 | -2.541,00 | *SUMANDO TV Y WEB-NAVARRA TELEVISIÓN INFORMATIVO E |
| CFNA | 2024 | -900.000,00 | *&Concesión directa de una subvención a Sumando TV |
| CFNA | 2024 | -4.235,00 | *RF 2233286 - SUMANDO TV Y WEB, S.A. - RETRANSM |
| INDJ | 2017 | -3.630,00 | *FT 17 9912 0004.EDIT.INDEP.MEDIOS NAV.RETRANSM.PA |
| INDJ | 2018 | -484 | *FT 9910/50.EDIT INDEP DE MEDIOS DE NAV.VIDEO NAVA |
| INDJ | 2021 | -18.150,00 | *LA CAIXA ES3221003692832200039927 |
| SNE | 2021 | -11.999,99 | *SUMANDO TV Y WEB SAU/PROGRAMAS COMPETENCIAS DIGIT |

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

## 11-25/PES-00243. Galdera, trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia taxutzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia taxutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-25/PES-00243 idatzizko galdera egin zuen, trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia taxutzeari buruzkoa. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Idatzi al da Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legeak ezartzen duen trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia?

Erantzuna ezezkoa bada, zer epe aurreikusten dituzte Nafarroako Gobernuak eta haren departamentuek trantsizio justurako eta justizia klimatikorako estrategia idazteko?

Aipatu estrategiak trantsizio ekologikoak ukitutako sektore ekonomiko eta sozialen diagnostikoa egitea eta ondorio negatiboak arintzeko neurriak ezartzea duenez helburu, eskudun diren bi departamentuekin jarri gara harremanetan: Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua, eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

Jasotako erantzunak aintzat hartuta, aipatu estrategia ez da oraindik ere idatzi, eta ez dago zehazterik zer epetan egitea aurreikusten den. Hori bai, estrategia lantzeko lagungarriak izan daitezkeen bi ekintza aipatu daitezke:

– 2050erako Nafarroako Energia eta Klimako ibilbide orri integratua egitea, trantsizio justurako apartatu espezifiko bat izanen duena.

– Industria Legearen aurreproiektuko 5. artikuluan aurreikusitako Nafarroako Industriako eta Enpresa Sustapeneko Planean, honako hau jasotzen da planaren helburuen gainean: «Karbono isurpen gabeko industria baterantz trantsizioak izanen dituen ondorio soziolaboralei aurre hartzea eta mekanismoak ezartzea enpleguaren birmoldaketarako, birkualifikaziorako eta banaketarako». Plana Trantsizio Justurako Estrategiarekin koordinatuko da, hau da, Klima-aldaketari eta energiatrantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aurreikusitako instrumentuarekin, trantsizio ekologikoak enpleguan izan ditzakeen eraginak aurreikusteko neurriak jasoko dituena.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## 11-25/PES-00244. Galdera, giltzurrun-transplanteak egitearren Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratutako pazienteei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak giltzurrun-transplanteak egitearren Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratutako pazienteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak 11-25/PES-00244 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, 2023an Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin osasun arreta emateko kontratua berritzearen gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Osasun Departamentuak 2023an berritu zuen, 2028ra arte hain zuzen ere, osasun-laguntza emateko kontratua Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin (ospitaleratzea, kanpo-kontsultak, azterketa diagnostikoak, tratamendu bereziak, kirurgia-prozesuak eta transplanteak).

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

Zenbat pertsona bideratu dira, 2023an eta 2024an, Nafarroako Klinika Unibertsitariora giltzurrun-transplantea egiteko, urteka eta bideratutako pertsona bakoitzaren larritasun-mailaren arabera zehaztuta?

Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuan eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora egindako bideratzeei eta haren fakturazioari dagokienez, eta, zehazki, 2023an eta 2024an egindako giltzurruneko transplanteei dagokienez, honako informazio hau ematen da:

2023an eta 2024an, hurrenez hurren, 52 eta 46 paziente bideratu ziren giltzurrun-transplantea egiteko itxarote-zerrendan sartzeko balorazioa egitera; azkenean, 43 eta 57 giltzurrun-transplante egin ziren hurrenez hurren.

Larritasunaren -mailari buruzko galderari dagokionez, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Nefrologia Zerbitzuak jakinarazi duenez, giltzurruneko transplantea egitea baloratzeko bideratutako paziente guztiak daude G5 taldean sartuta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

---

## 11-25/PES-00245. Galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako kredituen kostuari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak unibertsitate-graduetako eta masterretako kredituen kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00245 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, unibertsitate graduetan eta masterreko ikasketetan kredituak duen kostuaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren azken xedapenak, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 81.3.b artikulua aldatzen du, unibertsitateko irakaskuntzako prezio publikoak zehazteko erreferentzia gisa balio zuten tarteak ezabatuz.

Idazketa berriaren arabera, Unibertsitate Politikako Konferentzia Orokorrak ezarri behar ditu prezioen gehieneko mugak, zerbitzua emateak dakartzan kostuekin lotuta egon behar dutenak.

Unibertsitateetako Ministerioak graduko ikasketa ofizialetako matrikula-prezio publikoen eredu bat egin zuen 2020/2021 ikasturterako, lehen matrikulako kredituen prezioari bakarrik aplikatzen zaiona.

Eredu horrek, prezioen desberdintasun-indizea ere zehazten du autonomia-erkidego bakoitzean, ezarritako prezioarekiko dauden aldeak ikusita.

Bada, proposamena aintzat hartuta, Nafarroako Foru Komunitateak lehen matrikulako kredituen batez besteko prezioa % 7,14 murriztea erabaki zuen graduko ikasketetan, erreferentziatzat 2019/2020 ikasturterako onetsitako prezioak hartuta eta helburu hartuta 2011/2012 ikasturteko prezioekin parekatzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak jasanen lukeen inpaktu ekonomikoa minimizatzeko asmoz, graduen lehen matrikulako kredituen prezioetan urteko % 2,38ko murrizketa progresiboa aplikatzea proposatu zen, aurreikusitako % 7,14ra heldu arte.

Unibertsitateko matrikulen prezio publikoa mugatzen duten irizpide tekniko kuantitatiboak, honako faktore hauen arabera zehazten dira:

• Ikasketen esperimentaltasun gradua.

• Masterrak gaitzaileak diren edo ez.

• Irakasgaiak errepikatzearen ondoriozko zigor ekonomikoak edo prezio igoerak.

• Titulazio jakinen singulartasuna.

• Autonomia-erkidego bakoitzak matrikuletan arautako legez ezarritako salbuespenak eta murriztapenak.

Azken hamar urteetako prezioen zehaztapenaren xehakapena:

| | 2011/2012 | 2012/2013 | 2013/2014 | 2014/2015 | 2015/2016 | 2016/2017 | 2017/2018 | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 | 2022/2023 | 2023/24 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Exp. 1 | 15,1 | 15,7 | 15,9 | 15,9 | 15,9 | 15,9 | 16,27 | 16,25 | 16,25 | 15,86 | 15,48 | 15,1 | 15,1 |
| Exp. 2 | 21,38 | 22,24 | 22,53 | 22,53 | 22,53 | 22,53 | 23,05 | 23,05 | 23,05 | 22,5 | 21,95 | 21,38 | 21,38 |
| Másteres habilitantes | 26,29 | 27,34 | 27,7 | 27,7 | 27,7 | 27,7 | 22,67 | 22,65 | 22,65 | 22,65 | 21,95 | 21,38 | 21,38 |
| Másteres no habilitantes | | 43,75 | 44,32 | 44,32 | 44,32 | 44,32 | 28,34 | 28,35 | 28,35 | 28,35 | 28,35 | 28,35 | 28,35 |

Hori jakinarazten dut, ezarritako epeak eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

---

## 11-25/PES-00246. Galdera, Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus hiriarteko garraioari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus hiriarteko garraioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 13ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00246 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Lizarran eta inguruetan hiriarteko garraio gisa jarduten duen Tierra Estella Bus/Lizarreria Bus autobus zerbitzuaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

1. Nork kudeatzen ditu hiriarteko garraio-linea horiek?

Autobuses La Estellesa SL sozietateak.

2. Zer eskumen ditu Departamentuak ibilbideak eta geralekuak antolatzeko orduan?

Aintzat hartuta Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskumen historikoak, Nafarroak ibilbide osoa bere lurraldean egiten duten garraio-zerbitzuen gaineko eskumena du, bai eta, Nafarroatik irtenda ere, ibilbidearen zatirik handiena bertan egiten dutenena ere. Nafarroako eskumen historikoak honako hauek ezarritako eskumen-esparruan daude indarrean: Espainiako Konstituzioa –148.1.5 eta 149.1.21 artikuluak, eta lehen xedapen gehigarria–; 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa –49.1.f) eta 49.3 artikuluak–; eta 5/1987 Lege Organikoa, uztailaren 30ekoa, estatuak errepideko garraioari eta kable bidezko garraioari buruz dituen ahalmenak autonomia-erkidegoen esku uztekoa –1.2 artikulua eta xedapen gehigarria–.

Bada, dituen eskumen barruan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zerbitzuen planifikazioa gauzatzen du lizitazioen aurretik, errepide bidezko garraio publikoko zerbitzuen kontratazio-espedienteak kudeatzen ditu eta errepide bidezko garraio publikoko zerbitzuen jarraipena egiten du.

Behin kontratuak indarrean daudenean, ibilbideen eta geralekuen aldaketak kontratuan bertan eta sektoreko araudian erregulatzen dira, hau da, 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, lurreko garraioen antolamenduari buruzkoa, eta 1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onesten duena.

Ba al dago administrazio-emakidarik garraio-lerro horiek kudeatzeko?

Bai, Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus, Lizarra eta inguruko Abartzuza, Aiegi, Oteiza, Villatuerta eta Bearin (Deierri) herrien arteko zerbitzuak areagotzeko ezarri zena. Horretarako, Herri Lan, Garraio eta Komunikazioetako kontseilariaren uztailaren 28ko 719/2004 Lege Aginduaren bidez moldatu zen errepide bidezko bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzuen emakida Iruña eta Logroño artean, honako desbideratzeak ere aintzat hartuta: Aguilar Kodes-Lizarra, Los Arcos-Otiñano-Acedo-Lizarra, Azagra-Calahorra-Lizarra, Sartaguda-Lizarra, Mendabia-Los Arcos-Lizarra, Iruña-Lizarra Jaitzetik igarota, eta Arroitz-Lizarra Aiegitik igarota (VNA-011).

3. Zer dirulaguntza jaso ditu, halakorik jaso baldin badu, hiriarteko garraio-linea horiek kudeatzen dituen pertsona juridikoak, ezarri zirenetik gaur egun arte?

Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus-en ustiapena defizitarioa zenez, inplikatutako administrazioen finantzaketa jasotzen zuen horretarako espresuki sinatutako lankidetza-hitzarmenen bidez. Zehazki, hitzarmenak garaiko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta inplikatutako udalek sinatu zituzten, eta oraindik ere aplikatzen dira.

| **Urtea** | **Zenbatekoa eurotan** |
|---|---|
| 2004 | 45.532,77 |
| 2005 | 144.815,77 |
| 2006 | 159.130,00 |
| 2007 | 149.880,65 |
| 2008 | 169.369,41 |
| 2009 | 204.564,52 |
| 2010 | 204.863,59 |
| 2011 | 209.282,32 |
| 2012 | 212.415,32 |
| 2013 | 215.548,11 |
| 2014 | 212.270,14 |
| 2015 | 169.644,68 |
| 2016 | 165.162,00 |
| 2017 | 163.082,22 |
| 2018 | 118.346,54 |
| 2019 | 139.724,28 |
| 2020 | 134.313,32 |
| 2021 | 81.929,18 |
| 2022 | 111.541,21 |
| 2023 | 122.026,44 |
| 2024 | 125.908,81 |
| 2025 | 64.096,79 |

Hitzarmenetan ezarritakoa aplikatuz, Departamenduak ustiapen-defizita honako zenbateko hauekin finantzatu du:

4. Antzin, Legaria, Oko, Olexoa, Abaigar, Murieta eta Metautengo udalek eta Acedo, Zubielki eta Arbeitzako kontzejuek 2020an eskatu zuten hiriarteko garraioko linea bat gehiago jar zedin Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus-en, herri horiek Lizarrarekin lotzeko. Zergatik ez zen aintzat hartu eskaera hura?

Emakidaren indarraldia dagoeneko amaituta zegoenez eta enpresak zerbitzua behin-behinean ematen zuenez administrazioak kudeaketa luzatzeko egindako errekerimenduari erantzunez, zerbitzua iraungitako emakidan ezarritako baldintza berdinetan eman behar zen ezinbestean. Horrenbestez, ezinezkoa zen une horretan herri gehiago sartzea zerbitzuan.

5. Departamentuak zer konponbide planteatzen du despopulazio-arrisku handian dauden herri horiek eta Lizarra lotzeko –bereziki, ospitalearekin–, baldin eta ez bada linea bat sortzen Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus-en?

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 89/2025 Ebazpenaren bidez, honako zerbitzu hau adjudikatu da: «Aholkularitza integraleko zerbitzua, Nafarroako Foru Komunitatean errepide bidezko bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzuen emakidak kontratatzeko baldintza-agiriak idazteko eta proiektuak egiteko: Iruña-Lizarra – Logroño-Donostia. Lizarra eta Erriberagoiena (NAV-008) zona». Bada, emakida horretan aztertuko da 4. galderan zehaztutako herriek zer zerbitzu behar duten.

6. Departamentuak ez al du uste herri horietako 1.700dik gora biztanlek hiriarteko garraio-zerbitzua jasotzeko eskubidea dutela, Tierra Estella Bus/Lizarrerria Bus-ek jada hartzen dituen gainontzekoek bezala?

Lurralde Kohesiorako Departamentuak uste du Nafarroako herritar guzti-guztiek izan behar dutela garraio zerbitzua. Horregatik, hain justu, uneotan adjudikazio prozesuan den Baztaneko emakidak, bertako herritarren ia ehuneko ehunari emanen dio zerbitzua. Horretarako, lau herritarretik batek, nahieran jasoko dituzte garraio zerbitzuak, hau da, eskatzen dituztenean. Pirinioetako emakidan ere irizpide bera erabili da, eta bertako ustiapen proiektua ere oso aurreratuta dago dagoeneko. Lizarra eta inguruko herriei dagokienez, uneotan aurki lizitatuko den «Iruña-Lizarra – Logroño-Donostia. Lizarra eta Erriberagoiena (NAV-008) zona» emakidan ari gara lanean, eta, bertan, Antzin, Legaria, Oko, Olexoa, Abaigar, Murieta eta Metautengo udalek eta Acedo, Zubielki eta Arbeitzako kontzejuek bizi duten egoera aztertuko da, bai eta Estellerriko beste zenbait herriena ere. Tartean, herri horiek guztiek eskualdeko buru den Lizarrarekin duten konexioa ere jorratuko da.

Bada, hori da erreferentziazko auziaren inguruan esateko dudan guztia, eta horren berri ematen dizut, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago